



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

XXI MENDEAREN HASERAKO KLASE BORROKA

(Sokoa III, 2006ko ekaina)

0. SARRERA
1. EUROPAKO KLASE BORROKA
2. SINDIKATUEN KRISIA
3. KLASE BORROKAREN BESTE ADIERAZPENAK
4. TESIAREN LABURPENA
5. HIRU PROPOSAMEN EZTABAIDARAKO

1. ERANSKINA: KOLONBIA
2. ERANSKINA: ARGENTINA
3. ERANSKINA: VENEZUELA
4. ERANSKINA: BOLIVIA
5. ERANSKINA: ESTATU BATUAK
6. ERANSKINA: ERRUSIA
7. ERANSKINA: TXINAKO HERRI-ERREPUBLIKA
8. ERANSKINA: EKIALDEA

Iñaki Gil de San Vicente-Joseba Alvarez
Batasunako Nazioarteko Sailekoak



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

SARRERA: Testu honetan ez da oinarri materialik gabeko kontzeptu teorikoa bilatzen. Aitzitik, hasieran XXI. Mendearen hasieran garatzen ari den klase borrokaren lerro nagusiak adieraziko dira eta, errealitate horretan murgildu ostean, berari dagokion gogoeta egingo da. Izan ere, azaltzen den ordenan irakurtzea komeni da eta ostean, eranskinekin konparatzea.

1. EUROPAKO KLASE BORROKA

1. 2005eko bukaeran Euskal Herrian, Pferd Rüggeberg alemaniar taldearen Caballito enpresako 116 langilek egindako 745 eguneko greba luzea bukatzen zen. Alemaniar taldeak 1700 langile ditu sei lantegitan eta lau kontinentetan. Nahiz eta errentagarria izan, alemaniar multinazionalak soldadak eta langile kopurua murriztea eta lan baldintzak gogortzea erabaki zuen. Greba honek, klase borrokaren berezitasun "zahar" eta "berriak" lotu ditu: bi emakume langile kanporatu ostean haserako elkartasuna, langile demokraziaren eta asanbladaren praktikak, sindikatu baten traizioa batasuna apurtzeko asmoz, beste sindikatu baten erresistentzia-kutxa euren etekin korporatiboak lortzeko asmoz, kanpoko gizartearen laguntza, deslokalizazioaren mehatxuak, enpresarien larderia, polizi errepresioa, euskal burgesiak transnazionalari emaniko laguntza, mass-mediaren manipulazioa... Eta hau guztia nazio mendekotasun egoera batean ematen da, non langile klaseak, bere bertako eta kanpoko elkartasun eta defentsarako baliabide guztiak erabili ezin ditzakeen
2. Bitartean, Euskal Herrian beste hamaika gatazka ere gertatu ziren; hala ere, urrutirago begiratu behar dugu, klase borroka kapitalismoari datzekion konstante bat da. Caballito enpresa beste leku batera eramateko mehatxua, XVII. mendez geroztik burgesiak sortutako praktika iraunkorrean oinarritzen da. Garai hartan lehendabiziko burgesiak euren negozioak eramaten zituzten leku batetik bestera, etekin ekonomikorik handiena helburu. XVIII mendearen azken laurdenean praktika hau areagotu zen lurrin industria arloko langileek egindako lehendabiziko erresistentziagatik.
3. 2005eko abenduan frantziar Estatuko gazteriaren zati baten altxamenduak agerian utzi zuen bere arrazista bazterkeria larria Europatik kanpoko jatorria izateagatik. Gazteri honek bere baitan darama, bai euren arbasoen nazio zapalketa, bai euren beraien kultura eta erlijio zapalketa, bai euren lan eta gizarte zapalketa, bai euren identifikazio krisia, bai euren isolamendu politiko eta sindikala, bai pobrezia ekonomikoa, baita euren bizi frustrazioa ere. Erreprimitzeko, frantziar estatuak Israelgo poliziari laguntza eskatu zion.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

4. Lan esklabutza berriaren proposamen basatiaren kontrako 2006ko martxoan, gazteriaren zati handienaren iraultzak, langile eta herritar esparru nagusiek lagunduta, 1995eko neguaz geroztik gora behera batzuekin lortutako gizarte-tentsio maila adierazten du. 2003an langile publikoek erretiro legearen kontrako mobilizazioak, 2005eko otsail eta martxoan, 35 lan orduko astea suntsitzeko gobernu egitasmoaren kontrako ikasle eta gizarte borrokaz eta manifestazioez gogortu egin zen giroa; maiatzean Europako Konstituzio Egitasmoan EZ garaipena lortzean zehaztu zen egoera; ostean egoskortasun nabari bat islatu da. Hain zuzen, gorako dinamika baten faseak baino ez dira.
5. Belgikan, fabrika askotan bat-bateko grebak egin ostean, 2005eko urrian herritar eta langile arloek bi greba orokor egin zuten neoliberal politikaren kontra. Sindikatu ofizialek ez zituzten bat-bateko grebak bultzatu baina, greba haietatik aterako zen eta urriko mobilizazioak bultzatuko zituen auto-antolakuntza mugimenduan murgildu behar izan zuten euren burua. Horrezaz gain, lotura estua sortzen zen “herritar mugimendua” deritzetenaren gainontzeko borroka indarren artean. Indar hauek guztiek, 1993an gobernuaren Plangintza Orokorraren kontrako borroketan izandako haserako hurbilpenak garatu zituzten. 1996an “mugimendu zuria” delako garaian zehar sortutako dinamika indartu zen.
6. Alemanian sozialdemokraziaren krisia oinarritzen da kontserbadoreen indarretan eta, batez ere, 2003ko hasieraz geroztik langile mugimenduak izandako erradikalizazioan. Paradoxaz, langile mugimenduak sozial demokraziari lagundu zion 1998an gobernu kontserbadorea kentzen. Erradikalizatzeko hau ere bada SPD-ren ezkerrean kokatzen den hauteskundeetarako indar politikoaren sorreraren oinarria. Indar honek boza asko kendu dio SPD-ri eta “2010eko Agenda” delakoarekin oso kritiko azaltzen da, eskubide zibil eta sindikalen kontrako eraso gogorra da eta. Erretiroa 67 urtera arte atzeratzeko gogoia ere plangintza honen baitan dago.
7. 2003ko maiatzaren batetik 2004ko urtea hasi artean mobilizazioak areagotu ziren. Mobilizazioen unerik beroena izan zen metalurgiako langileek asteko lan jardueraren luzapenaren kontra borrokatu zutenean. Astean 35 orduetik, 1984an lortutako garaipena, 40 ordura pasatu nahi zuten enpresariak. Sindikatu ofizialek dinamika hau geldiarazi nahi dute baina 2004 urtean zehar sindikatu alternatibo berriak sortzen dira, politizatuagoak eta asanblada zaleak direnak. Sindikatu hauek ofizialak gainditzen dituzte, batez ere, urrian Brazil



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

eta Alemanian OPEL enpresak izandako greba masiboaren ostean. Ordurako, Siemens eta Daimler bezalako multinazionalak honelako grebak gertatuak ziren, baita neurri txikiko beste enpresa askotan ere. Langile presio honen atzetik SPD-ren barruko arlo kritikoak eta ezkerreko beste kolektibo asko antolatzen hasten dira.

8. Italian, 2005eko abenduaren 12an, milaka metal-mekanikako langilek greba egin zuten. CGIL sindikatuak esan zuen borrokari laguntzen ziola eta grebari gogor eusteko baina CGLI delako sindikatuaren metal-mekaniko arloak esan zuen negoziatzea hobe zela, eta hauxe PRC-ren laguntzarekin esan zuen. Eskuinalderako bira honen alde txarra da Berlusconi gobernuaren kontrako borrokak areagotzeko gorako tendentziarekin batera gertatzen ari dela. Hauxe berretsi egin zen 2005eko azaroaren 15ean, lau orduko iraupena izan zuen greba orokorrean.
9. 2001/03ko garaian, Berlusconi ospea erortzen hasi zenean, argi zegoen tendentzia hau. 2004az gerostik tendentzia honek bere ahalmena adierazi zuen gazte mugimenduetan batez ere Bolonian, eta herritar mugimenduetan, batez ere Piamonten. Beste adierazle bat, italiar hiri eta eskualdeen %75etan zentro-ezkerreko gobernuak garaile dira. 2006ko hauteskundeetarako tendentzia honek manipulazioak ekidin behar ditu, zeren presio erreformistek eta PRC-ko zuzendaritzak, Prodiri laguntza "kritikoa" ematera bultza baitezakete, Berlusconi botatzeko aitzakia dela medio.
10. Greziako biztanleriaren %25 pobrezia larrian bizi da eta bere langabe tasa ofiziala %11koa da. Bertan gobernu neoliberalaren kontrako greba orokorra egin zuten 2005eko abenduaren 14an. Hurrengo egunean, abenduak 15, zerbitzu publikoek greba segitu zuten gobernuak hartutako neurriek (pribatizazioak, desregulazioak, langile kaleratuak, etab.) eurengan eragin berezia zuten eta. 1000 bat Coca Colako langilek ere borrokari heldu zioten, transnazionalak Atenaseko lantegia ixteko eta atzeritar herri batean kokatzeko planak ezagutzean.
11. 2006ko otsailaren erdialdean Greziako portuko langileek greba bat egin zuten soldatak murrizten ari zirelako. Eskuinaldeko gobernuak militar egoera ezarri zuen; hala eta guztiz ere, Pireo portuan, Greziako porturik handienean izugarrizko gudaldia izan zen alde batean langileak eta bestean oso ondo armatutako polizia. Poliziak bere errekurso guztiak erabili zituen arren, ezin izan zituen grebalariak irabazi. Tamalez, erreformismo politiko eta sindikalak greba bertan behea uztea oso adierazgarria da.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

12. Coca –Cola eta portuko langileen borrokak, herri honetan areagotzen ari den gizarte egon ezaren adierazpide bi baino ez dira. Gorako tendentzia objektibo honen ganean, otsailaren 26an ezkerreko partidu politiko eta sindikatuen arteko bilera antolatu zen osasun, banka, ehungintza, garraio, eraikuntza, etab. alorretan borroketako koordinazioa hobetzeko. Arlo hauek burges erasoak pairatzen ari dira. Partidu eta sindikatuek, erreferentzi argia izango den ezkerreko fronte bat zehazten hasi nahi dute.
13. Països Catalans-etan la huelga de 2005eko abenduan, 660 langile bota ostean, SEAT-eko grebak ikasgai interesgarriak ekarri ditu CCOO eta UGT-ren espainiar sindikalismoaren paperari buruz. Alde batetik, sindikatu hauek pilo bat amore eman ostean, matxismoa sendotzea eta langile mugimenduen barruko borroka feminista ahultzea baino ez dute lortu. 660 biktima horiengandik 132 emakume ziren, kaleratutakoen %20 a. Hala ere, datu hauek larriagoak dira SEATEko langile guztien %12 baino ez zirela emakume aintzat hartzen badugu. Enpresa eraso honetan, sindikatu erreformistek zuzenean parte hartzen dute emakume langileen kontra. Emakume langileek pairatzen duten eraso gizon langileena baino zaharragoa da eta sistema patriarka-burgesari men egiten dio.
14. Beste aldetik, emakume langileak kaleratzeaz gain, patronalak egoera erabiltzen du sindikatu borrokalariak erreprimitzeko, eta kasu honetan CCOO eta UGT-ek, CGT-eko 145 afiliatu botatzen lagundu diote patronalari, kaleratu guztien %23koa CGT-koak ziren eta, jakina, sindikatu hau izan da langileen eskubideak gehien defenditu dituenena. Datu hauek ez dira kasualak. Sindikatuak biltzen dira, aurre-bilerak egiten dituzte, sindikatuen afiliazioa aztertzen da, patronalak biktimak aukeratzen ditu, eta errepresio honi CCOO eta UGT-ek laguntzen diote.
15. Honetaz gain, ia lan kaleratze guztietan bezala, patronalak bere garaipena aprobetxatzen du produkzio alor garestienak, zaharrenak edo motelenak ere depuratzeko. Honi buruz zer esan; kaleratuen artean portzentaia aldetik nahiko langile kaleratu baziren "lehen mailako ofizialak" deritzetena. Euren soldata batez bestekoena baino handiagoa zen. Berdin gertatu zen 55 urte baino adin gehiagoko langileekin. Jarduera honetan ere, laguntza sindikalak klase desegituraketari laguntzen dio eta arlo ahul eta kalifikazio gabea bilakatu nahi du.
16. Bukatu eta errematatzeko, sindikatu erreformisten larderiak gaitzesten dituzten, amore ematen ez duten eta borrokan segitzen duten



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

langileak. "Histerikoak" deitzen diete eta, hala, burges-ideologiaren "normaltasuna", bere zentsu gogorrean sendotzen dute. Hauen aburuz, pertsona "osasuntsua" eta "normala" da sistema menderatzailea onartzen duena, botereari men egiten diona; bestela, pertsona hori "histerikoa" da. Horren gordina izan zen CCOOeko Idazkari Orokorra, SEAT-eko kanporaketak zuritzeko asmoz, berari egindako elkarrizketa batean. Elkarrizketa 2006-1-12an izan zen plazaratua.

17. Sindikatu hauen sinesgarritasun eskasa areagotzen da euren barruko portaerarekin; adibidez, 2005eko azaroaren azken egunetan Madrilgo CC.OO-k berea den MAFOREM delako enpresan erabilitako modu neolibelaren kontra, langile esplotatuek egindako borroka. Edota, 2006ko martxoan Kadiz, Sevilla, Granada, Murtzia eta Madrilgo CC.OOko 25 kide atxilotuak izan ziren 8 milioi euro baino handiagoa izan zitekeen iruzur egiteagatik. Gakoa formazio ikastaroak egiteko Europako Batasunak emandako diruan datza. Edo beste bat, UGT-ek salatu du CC.OO-ek PP-ri lagundu diola patrimonio sindikala itzultzerakoan abantaila batzuk lortuko dituelakoan UGT-ren lepotik. Edota, 2004ko udazkenean Euskal Herrian Babcock-ko patronal eta CCOO-ren artean egindako akordioa. ELA eta UGT-ek ez zuten ezer egin.
18. Sinesgarritasun eza handitzen da sindikatu hauek, beste herri batzuetako zapalkuntzan bere Estatuaren ahalmen, kultura eta gizarte-politiko interesak defendatzen dituztelako. Hauxe da mundu mailan herri zapalduak askatzeko duten joera. Joera honek abiadura ezberdinak ditu, tokian tokiko prozesuen arabera, hain zuzen. Herri zapalduak kontzientzia hartzen duten heinean, euren sindikatu propioak sortzeko joera dute askatze prozesuan ezinbesteko tresnak direlako. Bere aldetik, Estatu menderatzaileak, erantzun gisa, lege eta debeku andanak sortu eta ezarriko ditu.
19. Estatu mailako sindikatuek lege menderatzaile horiek defendatzen dituzte bai euren nazionalista ideologia okupatzaileagatik bai euren bidez lortzen dituzten abantaila ekonomikoengatik, zeren euren burokrazien soldatak Estatu menderatzailearen eta burgesia okupatzailearen menpe baitaude. Euskal Herrian egoera hau zeharo argi azaltzen zaigu eta estatu mailako sindikatuak giltzarriak dira espainiar merkatuaren batasuna defendatzen dutenean, edo euren lan sistema bakarra, Gizarte Asegurantzaren estatu mailako kutxa eta espainiar kapitalismoaren batasun fiskala defendatzean. Beste horrenbeste esan dezakegu frantziar sindikalismoaren gainean.
20. Estatu mailako sindikatuek, herri zapalduetan espainiar nazionalismoa defendatu ez ezik, espainiar inperialismoaren defentsa ere egiten



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

dute, burgesia hala agintzen duen bakoitzean. Aipamen berezia egin behar da venezuelar CTV delako burokrazia atzerakoiarekin duten harreman estuaren gainean. Mafia talde honek parte hartzen du, bolibariar iraultzari egiten dizkioten eraso guztietan.

21. Gatazka asko daude Europako Batasunean, borroken gorako joera adierazten dutenak; besteak beste: portuetan Bolkestein plana ezarri zen arinago eta planaren kontra egindako portuetako greba oso arraskatsua izan zen; Europa erdian zehar 94000 langile duen Acerlor enpresa sarean mugitzen diren sindikatu nagusiek, korporazio handi bati euren enpresa saltzearen kontrako erabateko joera adierazi dute; EFFAT, Elikadura Industriako Sindikatuen Europako Federazioa, Coca-Colaren kontra ari da, zeren Atenasekoaz gain, Belgikan, Britainia Handian eta frantziar Estatuan lantegi batzuk itxi nahi baititu, EFFAT-ek bere indarrak mugitzen ari da 35 herritako 120 sindikaturen artean; martxoaren bukaerarako britainiar sindikatuek deitutako zerbitzu publikoetako greba, bertan milioi bat langile dago 9 sindikatutan afiliaturik.
22. Joera honek talka egiten du sindikatu erreformistekin eta Europako Sindikatuen Konfederazioarekin. Konfederazio honek 34 estatuko 73 sindikatu ordezkatzeko ditu, 60 milioi afiliatu baino gehiago izanik. 2005eko urriaren bukaeran Londonen egindako bileran, T. Blair-ek proposatutako gogortzen planen aurrean, Europako Sindikatuen Konfederazioak bere aldetik 2000. urtean Lisboako bileran onartutako gizarte programa bete zezatela baino ez zuen eskatu. Bitartean gizarte eskubideen kontrako erasoak martxan segitzen du. Hauxe oso estrategia geldoa da patronalaren aurrean. Patronalak 2005eko azarotik Europako Legebiltzarreko barruko Merkatu Komisionari Bolkestein Zuzendaritza berri jarri du martxan. Data hauetan, Komisionari honek erretiro adinaren gaineko eztabaida piztu ez ezik, EB-25eko kide berriei laguntzak nabariki murriztu ere egin die.
23. Estrategia geldoa zen Accenture eta The Lisbon Council-ek egindako ikerketaren emaitzak jakinarazi zirenean. Bertan etorkizuneko lan habiak gizarte eta komunitateko lanak izan zirela aipatzen zen: osasuna, zahartzarua, turismoa, garraioak, etab. Pymes-ek lan esparru hauek esplotatu behar zituzten. Jakin badakigu, desregulazio eta prekarietatearekin lan hauek eta pymesek berebiziko gaitasuna dute gizon-gabetasun patronalari eta morrontza sindikalari dagokienean. Testuinguru hau gaiztotuko da Bolkestein Zuzendaritza ezarri ahala.
24. Sindikatuek eta Europako Sindikatuen Konfederazioak ordena onartzen dute eta amore emate hori berresten da Europako Legebiltzarreko Bolkestein Zuzendaritzaren "erreforma" egitean. Bada, hobekuntza eskasak ekarriko dituzten azaleko aldaketa batzuk egin ostean,



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

Europako Legebiltzarrak atzeko atea ireki du, nor bere estatuko lege propioak, hain zuzen, Zuzendaritza ezar dadin. Hala, estatu mailako sindikatu erreformistak, eraso suntsikorra gutxika joango dira onartzen. Hauxe guztiak hurrengo puntura eramaten gaitu, hain zuzen, sakontzen ari den eta aztertu beharra dugun sindikatuen krisiaren puntua.

2. SINDIKATUEN KRISIA

25. Inperialismoaren presio bideak ez dira oinarrian ezertan ere ezberdintzen Estatu bakoitzak dituen baliabideekin. Hemendik abiatu behar dugu sindikalismo ofizialaren gainbehera aztertzerakoan. Hauxe da klase borrokan behin eta berriro agertzen den gertakizuna. Eta nahiz eta joera nagusiaren kontrako presioa ondo handia izan eta egindako ahaleginak oso handiak izan, momentuz ez dute gelditzea lortu.
26. Sindikatuetan ematen diren bajak anitz gauzen ondorioak dira, batzuk bere zehetasunean aztertu behar dira eta beste batzuk, ordea, testuinguru handiago bateko integrazioan. Aurrera segitu baino lehen OIT-ek emaniko hainbat datu aintzat hartu behar ditugu. 1985ean 328 milioi langile bazeuden afiliaturik, kopuru hau 164 milioira jaitsi zen 1995ean. Jaitsiera oso nabaria da azken hamarkadan: %77 Israelen; %71 Estonian; %55,19 Zeelanda Berrian; %50 Txekiar Errepublikan; %45 Polonian; %42,6 Argentinan; %40 Eslovakia; %38 Hungaria; %37,7 frantziar Estatuan; %29,6 Australian; %27,7 Britainia Handia; %21,5% AEB-etan; %10 Finlandian; %8 Suedian; %7 Italian...
27. Burgesiako ideologoen eskaintzen duten arrazoia honetan oinarritzen da: Oro har, sindikalizazioa hil zorian dago zeren "hiritar langilea" gizabanako libre, subirano, eta bere eskubidearen eta beharren jabe baita. Eta gizabanako gisa bere soldata bere kabuz negoziatu nahi du "hiritar enpresarioarekin", kanpoko presio sindikalik gabe, etab. Tesi honek badu bere arrazoi zatia, langile klaseen kokapena eta bere baitan ideologia burgesak duen eragina adierazten baitu; biak "hiritar" mitoarekin batera doaz beti.
28. Horrezaz gain, ustelkeria sindikalek ere tesi hau berresten dute maiz, bai bere mafia patronalekin eta gobernuekin egiten dituzten akordioak, bai gatazka askotan patronalarekin egindako akordio sekretuak, zeinen bidez delegatu sindikal jakin batzuek euren eskubideak soilik defendatu edo euren onura pertsonala areagotzen baitute, euren lankideak eskuz eta oinez loturik saltzen dituzten bitartean.
29. Norbanako-eria basatia den ideologia burgesa eta "ustelkeria sindikala" delako ideia indartuta ateratzen dira ekinbide honekin zeren



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

langileentzat onena, nor bere kabuz enpresariarekin negoziatzea eta edozein momentutan langileak salduko dituzten “ordezkari ustelen” presioei amore ez ematea berresten baitute Patronalak eskubide sindikalak onartzen ditu, zapaltzeko indar nahikorik ez duenean eta langile borrokaren kontrako polizia gisa jarduten dutenean. Ohiko sindikatuen egungo krisia hobeto ulertzeko, orain arte emaniko argudio partzial hau irauli behar dugu eta kapitalismoaren eta beti martxan dauden kontrajarrien ikusmira sistematiko batean sartu.

30. Lehena, balore-lanaren legearen egungo fase mundializataileak sortutako izua. Izu honek kapitalismoaren oinarriari zeharo lotutako prekaritatea areagotzen du, nahiz eta batzutan langile klaseak burgesiari inposatutako hobekuntza iragankorrak suertatu.
31. Bigarrena, sakonean antzeko krisietatik atera behar diren ikasgai teorikoak. Krisi hauek, kapitalismoaren historian izandako klase borrokarekin eta fase sozio-ekonomikoekin konparatuta itxura ezberdina badute ere, aurreko puntuari zeharo lotuta agertzen zaizkigu.
32. Hirugarrena, kapitalak sartutako tekno-zientifiko, espazio, denbora, lan eta diziplina aldaketak, 1975/85 urte aurreko langile mugimenduaren erdialdea suntsitzeko asmoz; indar hauen garaipena langile klasearen erresistentziaren indar edo ahuldadean oinarritzen da.
33. Laugarrena, etorkizunaren aurrean beldur, izu eta angustia giroa iraunkorki sortu eta mantentzeko, estatuko, para-estatuko edo estatutik kanpoko aparatuen eraginkortasuna. Biztanle gehienak soilik bizi dira bere lan indarraren soldatetik, bere hurbileko gizarte-familiaren soldatetik, edo pentsionista eta jubilatuei, pobretuei, lan mundutik kaleratutakoei, etab. burgesiak itzulitako gero eta murrizagoak diren gizarte limosnatik. Kapitalismoari lotutako bizi segurtasun eza, etorkizun hurbilari begira beldur bilakatzen da, klase borroka sakondu heinean.
34. Burges Estatuaren oinarritzko papera berretsi behar dugu zentralizataile estrategiko gisa, bai zentsu orokorrean, errepresio sistemarena, laster baten ikusiko dugun bezala sindikatu horiak barne, baita kapitalismoaren errotik beretik ateratzen den mendetasun ideologikoarena ere. Hauxe gertatzen da estatuko aparatuek, soldataren diktaduraren indar defendatzaileak diren aldetik, kontraesan ekonomikoetan eragiten dutelako. Indar hauek aldi berean badira gizarte politikoak, sexu-jenerokoak eta prezio-lanaren legearen mundializazioak sortutako nazio zapalkuntzakoak.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

35. Esandakoaren adibidea dugu Estatu, patronala, sindikatu erreformatzaile eta enpresarien terrorismo edo "lan istripuak" direlakoan arteko lotura zuzena. OIT-ren arabera egunero 6.000 langile hiltzen dira, urtero 2,2 milioi langile hiltzen dira eta bajak dituzten 270 milioi lan istripu gertatzen dira eta lan gaixotasunek jotako langileak 160 milioi dira. Datu hauek nabariki handituko lirateke azpi lan ekonomiako, lan informalaren ekonomiako, etxeko lanetako eta baserritar lanetako istripuak zenbatuko balira.
36. Enpresarien terrorismoa bukatu nahiko lukeen estatuak sindikatuen eta langileen eskubideak sendotuko lituzke, ikuskatzaileak eta euren beharrak areagotuko lituzke, lan gaixotasunen eta lan istripuen arrazoen zerrenda handituko luke, enpresarien kontrako isunak eta kartzela zigorrak handituko lituzke eta, ez luzatzearen, kaleratze librea, azpi kontratak, prekarizazioa eta lan egun luzeak debekatuko lituzke.
37. Eguneroko sarraski honetan Estatuaren aldetik ez dago ergelkeriarik, politika zuhur bat baizik. Politika honetan ezer gutxi egin daiteke enpresarien terrorismoaren kontra. Erantzukizun gabekeria handitzen da. Bitartean, Estatu bere propagandaren bidez egiten duen apurra hanpatu eta hedatzen du, bere erantzukizun zuzena ezkutatu. Halaber, borroka honetan buru belarri sartzen ez den sindikalismo erreformistaren laguntza du. Langile klasea errealitate honetatik jabetzen da eta sindikatu guztiei errua botatzen bukatzen du.
38. Gero eta langile arlo gehiagok sindikatuei terrorismo enpresariaren erantzukizuna leporatzearen azken erantzukizuna sindikatuena beraiena da, zeren euren ekonomizismoan galduta, langile klasea politikoki hazi nahi ez baitute; zertan eta, patronalaren Estatuaren kritika erradikala erdian ipintzen. Halaber, "ezkerren" erantzukizuna da oinarrizko salaketa hau aspaldian ahaztu zuten eta.
39. Klase borrokaren historia osoan oinarritzen den egiazko honetatik Europar Alderdi Popularrak egindako proposamenean ezkututzen dena ulertu dezakegu. 2005eko abenduaren 14an Europako Kontseiluaren legebiltzar Asanbladaren gai politikoen Komisioak onartutako proposamenean eskatzen da komunismoaren nazioarteko gaitzespena. "Komunismo" hitzarekin zer ulertzen den baztertuta eta 2006ko urtarrilaren 23-27an Europako Kontseiluaren batzar orokorretan proposamena onartua izateaz aparte, bi gauza ezin daitezke ukatu; alde batetik, proposamenak aurkezteak adierazten du "komunismoaren mamuaren" berriro sortzeari europar burgesiaren dion beldurra eta, bestalderetik, proposamenak sindikalismo horiaren praktika burgesiaren aldekoak indartuko ditu, zeren euren



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

burokraziak honelako salaketak jasotzen dituztenean izu izugarria sentitzen baitute.

40. Krisi sindikalak iraunkorki sortzen dira klase borrokan, orain zehaztu ezin ditzakegun faktoreen arabera. Bere garrantzia handia da arlo guztietan, baina batez ere, tokiko mailan ez ezik mundu mailako klase borrokan ere subjektu berriak kontziente eta eraginkor sartzen direnean, gizarte indar harremanei dagozkien kasuetan. Hauxe da emakumearen askapenaren aldeko borroka, jatorrizko herrien aldeko borroka, indiar nazioen borroka, -jatorrizkoena edo ezinbestekoena-, ekosistema eta ingurugiroaren aldeko defentsa eta hobekuntza, etab. Sindikatuen krisiaren gainean adibide asko ipini ditugu eranskinetan.

3. KLASA BORROKAREN BESTE ADIERAZPENAK

41. Mundu mailako etekin kapitalista emakumearen esplotazioan oinarritzen da eta hauxe kapitalismo sistema aurreko esplotazio patriarkapean zetzan. Klase eta nazio zapalkuntza baino aurrerago sortutako sistema patriarkala inposatu denetik, osteko produkzio era guztiak sustraitu dira aurreko emakumearen esplotazio, mendetasun opresioan, euren interes berezietara egokituz.

42. Eguneroko bizitzan, zapalkuntza bakoitzean eta herri bakoitzean, nola lotzen diren esplotazio kapitalista eta esplotazio patriarkala, ezin dugu zehatz -mehatz azaldu, Sokoa III-ean eztabaidatzen den emakumearen askapenari buruzko ponentziaren helburuetariko bat da eta. Sintesi moduan, klase borroka emakumearen zapalkuntzaren isla eta motorra, azalpena eta eragilea da, hala bere zapalkuntzan, nola bere askapenean. Sistema kapitalistaren eta patriarkalaren arteko lotura dialektikoak azaltzen du bihotzik gabeko gehiegikerien kontra borroka, bai kapitalismo aurreko produkzio moduen artean baita mundializazio kapitalistan ere. Izan ere, borroka horiek egungo borrokek dira baina baita mundu mailako etekin tasaren kontrakoa ere. Hauxe erabakigarria da eta.

43. Izan ere, Kapitala eta Lanaren arteko klase borrokaren praktikak baino ez dira, nahiz eta inperialismoaren hegemoniaren azpian planetako leku berezietan gertatu, non produkzio moduen arteko hierarkia ezberdinak baitira. Hauxe frogatzen da emakumeek duten gero eta garrantzi handiagoaren bidez, XVII mendetik ezarritako prezio-lanaren arteko legearen mundializazioaren ondorioen kontra. Prezio-lanaren arteko legeak aurre kapitalista herriak botatzen ditu birringailua kapitalistaren kontra. Honen ondorioz, kapitalismoak mesprezatzen dituen mota guztietako erresistentziak sortzen dira, "indigenismo", "fundamentalismo", "populismo", etab. Bezala. Hala ere, hauek mundu mailako klase borrokaren osagai berriak dira,



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

zeren borroka hauek, egun inperialismoa botatzen ari den akumulazio prozesua ahultzen baitute.

44. Planetan zehar inperialismoak mehatxatutako herri eta kulturetako identitateen aldeko defentsan emakumeak garrantzitsua hartzen ari da. Adibide askoren artean bat aukeratuko dugu: 2004ko hasieran Perun egindako Emakume Indigenen IV Kontinenteko Topaketa. Amerika guztietako ordezkariak bertaratu ziren. Era berean, Afrika eta Asian badago gero eta koordinazio handiagoa, eta arabiar-musulman mundu konplexuaren baitan euren herrietan euren eskubideak defendatzeko emakume asko ari dira koordinatzen baina baita eraso inperialisten eta kristau fundamentalismoaren kontra euren herriak defendatzeko ere.
45. Jatorrizko herri gehienetako borroketan emakumeak izan duen papera "garrantzitsua" dela esatera murgiltzen bagara, okertuko gara. Hori baino askoz gehiago da eta. Adibidez, maputxe herriaren ohiko borroka Maputxe **Matria** Mapu Ñuke – ama lurra- delakoaren inguruan gertatu dira. Mapu Ñuke – ama lurra- da maputxe herri sinbolikoaren eta memoria historikoaren erdigunea. Emakumearen funtsa ezinbestekoa da lurrarekiko lotura sinbolikoa eta materiala delako eta herriak duen lurraren komun jabegoaren kudeaketan parte hartzen duelako.
46. 2004tik euren lurra eskuratzeko egun Argentinako lurraldean guaraniar kollas eta ava herriek argi eta garbi esaten dute: lurrik gabe gosea etorriko da. Egun, Kolonbia bezala definitzen den lurraldean berdina adierazten du Cauca-ko Indigenara Eskualdeko Kontseiluak. Nahiz eta militar eta paramilitarrek euren kideak erail, erakunde honek gero eta borroka handiagoa darama euren eskubideen alde. 2005eko azaroaren 10ean erakundeak berak emaniko komunikatu batean zioten bezala: euren ama lurra askatzeko prozesua.
47. 2004ko urtarrilaren bukaeran Amazonako Arroko Indigena Erakundearen Koordinadoraren Zuzendaritzaren Koordinazio eta Kontseiluaren (COICA) bilerak bukatu ziren Quiton. Venezuela, Brasil, Ekuador, Surinam, Kolonbia, Peru, Guyana, frantziar Guyana eta Boliviako ordezkariak bertaratu ziren jatorrizko herrien iraupena bermatzeko, azken zuhaitza moztutakoan, azken arraina hartutakoan, azken ibaia lehortutakoan desagertuko direla badakite eta.
48. 2004ko uda eta gero, Abya Yala Indigenen Bigarren Goi-bilera ospatu zen Quiton. 64 jatorrizko herritako 500 ordezkari bertaratu ziren. Laburbilduz, bertan landutako gaiak izan ziren: Lurraren eta beraren errekurtsoen jabego komuna, autodeterminazioa, nazioarteko eskubide eta erakundeak, garapen ordaingarria eta biodibertsitatea,



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

antzinako ezagutzaren jabetza kolektiboa; FSM, gobernu eta politika interbentzioa, Komunikazioa eta militarizazioa.

49. Gogoeta hauek guztiek badute puntu komun bat: inperialismoak duen egungo eraren kontra. Era honek emakumearen lan indarraren esplotazioaren intentsitatea areagotzen du, herriei euren oinarri materialak eta bizi iraupenerako sinboloak eta metatutako soberakinak lapurtzen dizkie. Era berean, kapitalismoak inposatu nahi duen erabateko merkatarizazioaren kontrako gizakien praxiaren potentzial sorrera anitz izateak adierazten dituen guztien, identitate komun, gutxitutako kulturen mundu anitza, zabal eta pluralaren defentsaren kontzientzia nabaritzen da.

50. 2006an Caracasen egindako VI Mundu Gizarte Foro Poliedrikoan, Emakumearen Nazioarteko Gorteak planteatutako eztabaidagaiak bi modu hauetan laburbildu daitezke: Cóndor plana, ALCA, Komertzio Libreko Akordioak; eta Latino Amerikaren militarizazioa; Feminizidioak eta gogorkeria patriarkalak; emakume baseritar, beltz eta indigenen kontrako gogorkeria; Emakumea esplotatzeko moduan (patriarkadoa eta kapitalismoa); sexu garraio eta esplotazioa, sexu aniztasuna eta IHESrekin bizi diren emakumeak; fundamentalismoaren kontrako borroka; baztertuetak emakume erresistentzia alternatiboak; Borroka, gudaren kontra borroka, pobrezia kontrako, arrazakeriaren kontrako, talde gutxituen aldekoa; inperialismoaren kontrako borroka sindikalak; eta biodibertsitatea eta inguru giroaren aldeko defentsa.

51. Munduan zehar zabaltzen ari diren honelako bileretan eta beste askotan eskaera praktikoak eta inperialismoaren mamia erasotzen dituzten planteamendu teorikoak plazaratzen dira. Ondorioz ez da harrizkoa 2005eko hasieran yankira inperialismoaren burmuina den National Intelligence Council (NIC) delakoak esandakoa. Honen aburuz herri indigenak agertzen dira 2020an AEB-ek izango dituen hiru arerio nagusien artean; beste biak Islam eta Txina Herri-Errepublika izanik.

52. Australiatik Alaskaraino, eta Patagoniatik Siberiaraino, Kalaharitik pasatuta, laurogeita hamargarren urtetik aurrera joera nagusia da herri "atzeratuen" mobilizatorantz doana. Egun bizirik dirauten 100.000 boskimanoek borroka tinko bat hasi dute euren antzinako kolektiboki landutako lurak errekueratzeke. Lur hauek kendu dizkiete gizabiderik gabeko eraso bidez; adibidez ur putzuak itxi zizkieten, erreserba begiratuetakoko deportazio masiboak. Erreserba hauetatik berrehun bat atera dira eta euren ohiko lurraldeetara itzuli dira. Diamanteen mundu mailako merkatuaren jabe den eta bertako gobernuak, batez ere Botswanakoak, lagunduta dagoen De Brees multinazionalak lur horiek eskuratu nahi ditu.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

53. Munduko eszenatokian herri “atzeratu” hauen agerpena, XIX mendearen azken herenetik aurrera komuna, elkarren arteko laguntza, autogestioa, txanponik eta merkaturik gabeko harremanak, kolektiboa berriro baloratzeko joeran ezkerren eztabaida klasikoak berpiztu egin dira. Honek, espazio-denboraren jabego kolektiboaren, produkzio indarrak ekoizlearen esku egotearen gaineko eztabaida berriro martxan jartzea suposatzen du. Sintesian, soldatapeko esklabotasunarekin bukatzeko beharra.
54. Herri hauen borroka mundu mailako borrokaren oinarritzko zatia da eta uneko eraginak dauzka klase borrokaren eta inperialismoan kokatutako herrien gainean, eta alderantziz. Historia klasistan Internazionalismo proletarioa sekular ez da ezinbesteko beharra orain baino, mundu mailako borroka klasearen borrokan nazio hauek eta mendebaldeko ezkerreko eurozentrismoak mespretxatutako kolektibo eta subjektuak sartuko direla aintzat harturik. 2005eko abenduan Hong-Kongen OMC-ek egindako bilera baten eta hirukote inperialistaren obsesioa da herri hauen gorako errebindikazioak suntsitzea edo galaraztea, hain zuzen.
55. Hong-Kongeko OMCren bileraren emaitzek adierazten dute gizarte mailako kontraesanak handitu direla, hiru maila hauetan : G-20ko “garatzeko bidean” dauden balizko herriak eta G-90an koordinatutako herri pobretuak, euren baitan hirukote inperialistaren aurrean amore ez emateko eskatzen duten herritar indarrak; eta EAB-etako eta Japoniako barruko kontraesanak, euren artean bere burgesiak eta arlo iraultzaileak aurrerakoiak, demokratikoak, etab.
56. Honelako kontraesan zehatzen eztanda planeta mailan inperialismo estrukturalaren antagonismoaren zati bat besterik ez dira, hain zuzen, berriro gertatuko zena 90 hamarkadan burgesiak ukatu egin zuena, “historiaren bukaerara iritsiak ginen eta. 1998ko Seattleko gizarte borrokan burgesiaren porrot historikoa berresten zen, eta hauxe berriro berretsi egin zen Cancun-eko 2003ko porrotean. Hemendik aurrea inperialismoak taktika berria erabili zuen. Den dena nazioarteko bilera handi horietan esan beharrean, presionatzen, xantaia egiten eta mehatxatzen hasi zen eskualdeko alderdietan herrietako batasuna apurtzeko asmoz. Hala ere, Latino Amerikan AEB-ek berriro porrot egin zuten ALCA-rekin eta Ameriketako Gailurrean eta EB MERCOSUR plangintzarekin.
57. Hong Kong-en hirukote inperialistak garaipen partziala lortu du – Cancuneko galerarekin konparatzen badugu-, zeren Hong-Kongen hirukote inperialistak G-20an eta neurri eskasago batean G-90an burgesia esportatzailearen interesak langile herrien kaltetarako



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

inposatu baititu. Garaipen erlatibo honek adierazten du pobretutako herrietako burgesiek nahita inperialismoaren eskaerak onartu dituztela. Burgesia hauek euren herriak tronpatu eta jokatu dituzte, OMCren “negoziazioetan” epeen garrantzia aitzakia dela medio.

58. Hala ere, herri hauek bizi diren estatu batzuetan, India edo Brasil kasu, antzinako ezagutzaren defentsa trinkotzen saiatu dira, pirateria inperialistari –bioesklabutasuna ere deitzen hasia dena - aurre egingo dion kultura sortuz. Biopirateria izan da kapitalismoaren historian faktore egonkor bat, ahalik eta merkeen euren akumulazio tasa arinduko duen adar produktibo berriak sortuz euren anabatatik ateratzeko.
59. Biopirateriak herri zanpatu baten bizi iraupenerako ezinbestekoa dena lapurtzen du, natura errekursoetan hasita kultura eta hizkuntza errekursoetaraino iritsita bere gene kodetik eta bereizitasun biologikoetatik pasatuta, belaunaldietan zehar metatutako bere gizarte soberakina ahaztu gabe. Honela ulertu behar da 2005eko bukaeran NBE-k, munduan 3000 jatorrizko hizkuntza desagertzeko zorian daudela esan zuenean. Eta hizkuntza horiekin batera antzinako jakintzak eta, goian ikusi bezala, hizkuntza horietan komunikatzen diren 3000 herri horiek desagertu nahi dituzte.
60. Herriak lapurtzeak halabeharrez, sakatutako herriaren espazioa berriro antolatzea ekarri ohi du, lapurretaren trinkotasuna eta arintasuna errazteko. Espazioa berriro antolatzeaz mintzatzea da denbora berriro antolatzea, kapitalismoan hasieratik hil ala biziko faktorea dena, baina are gehiago inperialismoaren egungo une honetan. Hain zuzen, espazio-denboraren auzia klase borrokaren oinarritzko zatia da ber zentsu absolutuan, Kapitala eta Lanaren artean. Ponentzia honetan auzi honen adierazpen anitzak ezin adieraz ditzakegu. Horregatik ingurumenaren eta desarrollismo kapitalistari egindako kritikaren gaineko ponentziari begiratzeko agintzen dizuegu

4. TESIAREN LABURPENA

61. Klase borroka bada eguneroko gauza bat. Bere jatorria esplotazioaren errealitate objektiboa baino ez da: gizakien zatirik handiena esplotatua, zanpatua eta menderatua da produkzio indarren gutxiengo jabe txikiarentzat. Sintetikoki esanda, gehiengoak proletario klasea osatzen du: Lana; eta gutxiengoak klase burgesa, Kapitala.
62. Gizarte klasearen definizioa dialektikoa da: Lanak eta Kapitalak kontrario bildu gaitzak eta kontrajarriak osatzen dituzte. Bata ez da bestearen



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

ezean. Elkarri gorroto eta elkar maite dute baina ezin dute elkarrengandik alde egin, baldin eta gizarte klasistarekin bukatzen ez bada. Bada errealitate aldakorra, mugikorra, inoiz ez geldikorra. Klase borroka zehatz bakoitzeko aztertu beharreko gizarte konplexutasun bat badago.

63. Bada orokorraren eta partikularren dialektika, abstraktu eta zehatzena. Bere baitan borroken une analitikoa murgiltzen da, zeinek bere baitan murgildutako nazio, politika, kultura errealitateak erakusten dizkigun, baita aldaketa iraunkorrean borroken frakzioak ere, etab. Halaber, borroka horien guztien sakoneko identitateak erakusten digun une sintetiko bat ere badago. Une sintetiko honek euren barruko harremanak erakusten dizkigu, baita bertatik ateratako ikasgaiak ere.
64. Egungo munduko kapitalismo fasean lan klasearen zati industrialahultzeko joera nabaritzen dugu; finantza eta merkatal arloa, ordea, handitzeko joera dago; azpi kontratazio – berez soldata azpiko esklabotasuna- eta prekarizazioa handitzen dago. Halaber, badago langile publikoen, gizarte zerbitzuen, esfera teknozientifikoaren eta merkantzia kulturen produkzioaren asalarizazio pribatua,
65. Mundu mailan, langile klasea oro har hartuta, soldata peko masa nabariki handitzen ari dela eta klase burgesa murrizten ari dela erakusten da inolako zalantzarik gabe, nahiz eta ESSB ohian kapitalismorako prozesu historikoa bukatu eta Txina Herritar-Errepublikan hasiera kontraesankorra izan. Aurre kapitalismoko bizimoduan bizi diren edo etekin eskaseko oso lur sailen jabetza sakrifizio jasangaitzez mantentzen dituzten emakumeak eta baserritar masek pairatzen dute asalarizazioa.
66. Aldi berean, badago plusbalioa erlatiboa eta plusbalioa absolutuaren arteko lotura gero eta estuagoa da; hots, teknologia berrien bidez lan indarraren esplotazioaren eta lan ordu askoren artean. Burgesiak esplotazio trinkoa bilatzen du, lan asalaratuaren orduak luzatuz. Jatorrizko kapitalismo basatira itzultzeko arrazoietakoa bat da dirua pilatzeko gero eta zailtasun gehiago egotea, baita lanaren produktibitatea gero eta txikiagoa izatea ere. Honen arrazoiak dira, alde batetik NTC-ren kostu altua eta bestetik herritar eta langile erresistentziak.
67. Aldi berean, mundu mailan lan konplexu eta kalifikatuak murrizten ari dira lan xume eta kualifikatu gabekoei dagokienez. Izan ere, kapitalismo urperatu, erregulatu gabe, mafioso, hiltzaile – Kapitala da erailketa- eta suntsitzailean masa prekarizatuak areagotzen ari dira.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

68. Aldi berean, klase borroka jakin hauen emaitzekin batera hala beharrez ematen diren aldaketek euren barruko erlazioa dute finantza kapitalarekin eta bere arrisku handiko zatiarekin, militar, tekniko-zientzifiko eta osasun goi-teknologien, finantza-industria kapitalaren bidez eta arrisku handiko inbertsioekin. Era berean, industria kapitalaren atzerapen erlatiboa dago, zein Hegoamerikako edo Asiako hazkundeaz errekupeazio txiki bat izan dezakeen. Halaber, errekupeazio hau industria produkzioari aterabide emateko ezinbesteko komertzial kapitalarekin ere badu harremanik.
69. Hala ere, azken analisisan gizarte krisi handi bakoitzean Kapitalak Lanari irabazteko aldaketa hauek sarturik izanak diren arren: Hala eta guztiz ere, munduan asalarizazioaren garapena ukazina da. Euren balore bakarra, euren lan indarra, soldata baten truke gaizki bizitzeko saldu behar duen gizaki masa handitzen doa.
70. Beste aldetik, egia da asalarizazioa handitu bitartean, jabetza pribatua gero esku gutxiagotan, burgesia inperialista handiaren gero eta gizon gutxiagorengan, gero eta zirkulu txiki eta trinkoagoetan zentralizatu, bildu eta murrizten ari dela.
71. Metodo dialektikoak eskatzen duelako, aldaketa hauek ikasi behar ditugu planetako eskualde handi bakoitzeko errealitate zehatzetan, hirukote inperialistan, "goratzen ari diren herriak" direlakoetan eta herri pobretuetan.
72. Sarri askotan klase borroka isila, geldoa, etekin eskasak edo jabearen kontrako mendekua lortzeko edo esplotazioari, bere erritmoari, exigentzi eta diziplinari aurre egiteko esplotatutako masa azpikoa da. Eure borroka bideak dira lan egiteko era geldoak, lan absentismoa, erresistentzia pasiboa, baita jabearen etekinak murrizten dituzten eta lan erritmoak galgaten dituzten sabotajeak ere.
73. Erresistentzia hauek zabal eta koordina ez daitezen sistematikoki parte hartzen duten sindikatu erreformisten lana oso kaltegarria da. Sarri askotan sindikatu hauen orden agentearen papera jokatzeko dute fabriketan. Baina sindikalismo honek alderdi erreformisten batera lan egin ohi du, bere legebiltzarreko pleitesia eta guzti, fabriketan fronte interklasista indartuz.
74. Une batean edo bestean geldoa eta isila urrun azaleratu eta entzungo da borroka irekia, publikoa eta kuartelik gabea bilakatu delako. Helburua eta, gizon emakumeok produkzioaren indarren jabetza kolektiboa konkistatuko dugu; hots, iraultzak eta baita herri zanpatuen nazio liberazioaren aldeko borroka iraultzaileak ere.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

75. Eta une kritiko hauetan, hain zuzen ere, sindikalismo erreformistak patronalaren eta gobernuaren aldeko jarrera hartzen du zuzen eta inolako aitzakiarik gabe. Erabaki honek, argi eta garbi langile klasearen zati borrokalariei aurre egiten die, eskura duten baliabide guztiekin. Burgesiak baliabide hauek ematen dizkie, dirutik hasita, prentsan eta TBen agertzea, beste indar politikoez bilerak, etab.
76. Une guztietan egiten den azpiko borrokaren eta iraultza prozesu handi eta liskartsuen artean, bi mutur hauen artean hemen laburtu ezin ditzakegun beste mailetako borroka mota bukagaitza dago. Hala ere, euren ondorio bortitzengatik batzuk nabarmentzen dira: halaberrez klase borrokak diren kontrairaultzak, faxismoak eta militar kolpeak, guda inperialistak eta mundu mailakoak.
77. Horregatik klase borroka ekonomiaren barruan dago, bere garapenean parte hartzen du eta ez da handik kanpo izaten. Langile eta herritar erresistentziek enpresaren etekinak, akumulazio prozesu osoa murrizten dute; eta alderantzizkoa ere, burgesiak duen etekin handiena lortzeko moduek esplotazioa gogortzea eskatzen dute nahita nahi ez.
78. Menderatzaile klasearen botereak diren gizarte erakunde guztien, komunitatearen eta herriaren baitan dago klase borroka. Gizarte bizimodu osoa Lan eta Kapitalaren arteko talka iraunkorrak baldintzatzen du, ohiturak, hizkuntzak, kulturak aurreko belaunaldietako borroka klaseekin lotura bereziak dituzten bezala. Honengatik herriaren etorkizuneko garapen proiektuek honelako barruko kontraesanak adierazten dituzte.
79. Garapen ekonomiko, herrien eguneroko bizitza, euren kultura, euren patriarka-burgesekiko klase borrokaren barruko harremana ez da Estatu kapitalistaren paper erabakigarririk gabe ulertzen. Honek gogorkeriaren erabilera monopolizatzeaz gain, marxismotik atera duen definizioaren arabera, parte hartze iraunkor, egonkor eta sistematikoaren beste gaitasun askok erabili ere egiten ditu.
80. Klase borroka ez da linealtasun mekaniko eta automatikoa, prozesu tendentzial irekia baizik, non elkarren arteko talkan gizarte indarren konplexutasunak sortutako zortea eta ustekabea izaten baitira. Garaipena eta galera dira posible, bai borrokan ari diren bando bien hondamena, bai gizarte osoa geratzea, baita atzerapen historiko baterantz abiatzea ere.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

81. Klase borrokaren uhin edo faseak izaten dira, kontrajarri bildu gaitzen arteko dialektikaren araberakoak direnak. Baina faseek ez dute maiztasun finkorik, ez dira sistema kapitalista osoan zehar zabaltzean. Badira leku batzuk geldoagoak direnak eta beste batzuk, ordea, eraginkorragoak. Garapen ezberdin eta nahasiaren legeak azaltzen ditu ezberdintasun hauek.
82. Fase hauek ekonomi, politiko-instituzional, kultura faseetatik alde gaitzak dira. Nahiz eta elkarren artean epe laburrean nabaritzeko zailak diren garapen erritmo autonomia izan, epe luzean osotasun kontrajarri batean euren arteko eragina argiago ikusten da.
83. Ekonomia faseek ere, berez klase borrokaren partaideak eta alderantziz, badute euren autonomia propioa dute eta, batez ere, badute lotura bat berrikuntza tekniko zientifikoekin. Baina finean, klase borroka da barrutik bai fase jakin batean presio egiten duena, bai bere bukaera baldintzatzen duena, bai beste fase bat sortzen duena; baina beti gizarte krisi artean.
84. Egungo fasean, arreta bereziz aztertu behar ditugun bereizitasun "berriak" sumatzen ditugu: emakumearen agerpena, zeharo prekarizatutako gazte multzoen agerpena, herrien agerpena; internazionalismo eraginkorago baten agerpena, auto-antolatzeke beste modu batzuen agerpena, non GKB-ak adierazpen bat baino ez diren; Internet-en oinarriturik adierazteko baliabide interaktibo berrien agerpena; legebiltzar eta erakundeetako politika gero eta beltzago agertzen dira, etab.
85. Baina aspektu "berri" hauen ondoan, beste txar eta arriskutsu batzuk agertzen zaizkigu; abesteak beste, neoi-faxismorako jarrera, gizarte kontrola gogortzea, polizia-bigilantzia, prebentziozko errepresioa, burges demokrazia eta libertateen murrizketa, eskuma eta ultraeskuinaren hauteskundeetarako mobilizazioa, etab.
86. Bai kapital metaketaren garaian, bai esplotazio moduak aldatzen direnean, bai klase borroka aurreratzen denean, euren fase historikoetan mundu mailako krisiak bortitzagoak dira, batik bat. Momentu hauetan langile mugimenduak sindikatu alternatibo berriak sortzen ditu, hala patronalaren erasoei nola sindikatu garaileen burokratizazioari aurre egitekotan.
87. Sindikatu berriek kritikoki teorizatzen dute eta esplotazioaren errealitate berriei, langile klasearen barruko aldaketei, prekarizazioaren areagotzeari, lanaren feminizazioari aurre egiten diete. Ahaztutako antolatzeke moduak errekuiperatzen dituzte, adibidez, ekintza semiklandestinoa edo alegala, kale eta auzoko harrenak, herritar



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

mugimenduarekiko harremanak, etab. Eta batez ere taktika berriak bilatzen dituzte langile gazte zati berriengan sustraitzeko. Talde hauek ez dute eskarmentu sindikalik eta sindikalismo erreformista zaharra ukatzen dute.

88. Halaber, lehen ez zeuden ezkerreko erakunde politiko berriak sortu edo txikiak zirenak handitu eta errecuperatu egiten dira, eurek dinamizatutako borroka berrien bultzadak lagunduta. Hala, joera berriko dialektika politiko-sindikala sortzen da langile klasearen baitan. Klase hau barruko aldaketa prozesuan ere badago.
89. Prozesu hauen berezitasun bat da asanblada berriro agertzea, horizontaltasuna, laneko, auzoko, eskolako langile eta herritar demokrazia, etab. Hauek erakunde politiko, talde eta sindikatu berrien ekintza mota hauei zeharo lotuta daude. Auto antolaketa joera sendoa da honelako prozesuetan eta antzinako indar sindikal eta politikoenkin talka egiten du. Dei diezaiegun nahi dugun moduan: asanbladak, kontseiluak, sobiets, komunak ed dena delakoa, baina berriro agertzen dira.
90. Beste berezitasun bat da kontra-botere hazi hauek, botere bikoitza eta azkenean herritar boterea, euren ondoko lekuetan, euren auzoko edo lantegiko edo eskolako kolektibo eta mugimenduetan sustraitzeko joera dutela. Eta azkenean, sarean antolatutako erakunde bezala, krisian dagoen gizarte osora iristeko gaitasuna dute eta gai erabakigarriak planteatzen dituzte, adibidez: autogestioa, autodeterminazioa eta autodefentsa.
91. Beste berezitasun erabakigarria da Kapitalari eskaintza ez onargarriak egiteko joera duela: lan denboraren murrizketa erradikala, lantegien langile kontrola, erakundeen herritar kontrola, demokrazia zuzena, indar errepresiboen garbiketa, garapen ereduak berriro planteatzea, mota guztietako eskubide aurrerakoen zehatzak, eta sintesi bezala, azpiegitura, toki eta lantegietako errekupeazioa. Hala, habe pribatuaren burges eskubidearen praktika suntsitzen dute, baita euren senitartekoei herentzia uzteko eskubidea ere.
92. Borroka guztiak neurri berarekin neurtzeko akatsa ezin bete dezakegu. Hemen, gauza guztietan bezala, bakoitzari dagokion era bereizi, formal, komun eta esentziaren arteko dialektika dago. Euren arten puntu komunak eta ezberdinak zein diren argitu behar da.
93. Langile eta iraultzaile mugimenduan maiztasunez eztabaidatzen da, espazio, hirigintza, produkzio, errepresio eta gainontzekoak langile kaleari irabazteko eta garai hedatzaile berriari ekiteko asmotan egin diren berrikuntzak ea masa zanpatuek gainditzen zuten ala ez. Baina



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

hauek, eguneroko jardueraren bidez oztopo berriak gainditzen bukatzen dutela adierazi dute.

94. Egungo klase borrokaren uhin berriak hain gertatzen, hain zuzen. Une honetan masak gero eta sarriago jotzen du telefonia mugikorrera, internetera, garraio arinetara, etab. Lan eta eguneroko bizitzaren artean edo lan eta erosketaren artean aisia programatuaren artean dauden gero eta espazio handiagoak gainditzeko. Egun oinarrian masa adierazten ari da aurreko faseetako beste etorrera edo sortzeko gaitasuna.
95. Duela hamar edo berrogeita hamar urte, neoliberalismoak klase borrokarekin bukatua zuela esaten zutenek eta egiazkoa ez zen sozialismoaren inplasioak praxi iraultzailearen heriotza adierazten zutenek gizarte borrokaren egoera erreala ikusten dute zur eta lur.
96. Masa mobilizazio handiak agertzen dira denbora gutxitan, zergatik leku horietan jendea bildu den jakin gabe, antza. Beste lekuetan, indar politiko garaileek, irabaztea espero zituzten erreferendumak galtzen dituzte. Beste leku batzuetan, sindikatu ofizialen ezkerrean sindikatu berriak sortzen dira eta datu askok adierazten dute jendeak instituzioen politika gero eta beltzago ikusten duela.
97. Halaber, duela urte batzuk munduan zehar areagotzen diren FORO ezberdinen sorrera aipatu behar dugu. Ez gara Gizarte Foroaz soilik mintzatzen ari, baizik eta beste batzuetaz. Foro hauetan gai zehatzagoz hitz egiten dute: emakumearen askapenaz, uraz, libertateez, torturaren kontra, etab. Hala ekintza ugalketak adierazten du bai arazo larrien gaineko jende askoren kontzientzia, bai erakunde ofizialetako ordezkarien uholdea gaindiezina. Erakunde hauek ez dira mobilizazio hauei bideratze praktikoa emateko gai, are gehiago, sarritan kontra daude.
98. Hala ere, Eskarmentuak esaten digu prozesu hauek sarritan laburrak direla. Argi trinko eta ederrak dira baina aurretik bere baitan bere barruko antolaketari eta osaketari lagunduko dizkioten indar iraultzaileak kokatu eta garatu ezean, amatatuko dira. Burgesiaren ahuldade hau ezagutzen du eta bere zatiketa, galera politikoa eta suntsipena arintzeko neurriak areagotzen ditu.
99. Hala, kontraesan objektibo eta politikoki eta sindikalki antolatutako faktore subjektiboaren arteko dialektikaren iraupena adierazten da, edo nahi izanez gero, antolakuntza eta bat-batekotasunaren arteko dialektika. Dialektikaz mintzo gara, ez antolakuntza purua, ez bat-batekotasun purua izaten ez delako: polo biek eragiten dute konturatu



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

gabe geratzen den gizarte praktika batean, ahalik eta bizitza publikoan indartsu agertu arte.

100. Ikusitako joerak, normala denez, egoera jakinen azpian geratzen dira, non klase borroka bakoitza geratzen den. Eta egoera horretan oso bereziki zentsu gogor eta erabakigarria duten nazio edo estatu natura dutenak bai langile klase nazio mailan zanpatua, bai, aitzitik, "bere" burgesiari beste herriak zanpatzen laguntzen duen beste bat. Honela, klase hauek etekin material eskasa eta etekin sinboliko eta burges nazionalista handia lortuko dute.
101. Mundializazio neoliberalak uniformatutako errealitatean, herri langilearen identitate nazionalak berebiziko garrantzia du, elkarren aurka borrokatzen duten bandoen ahuldade eta indar-guneak adierazten ditu eta. Herriaren gizarte historia, euren ohiturak –ez soilik burgesiarenak-, euren memoria eta militar kontzientziak, auren autodefentsarako joera etika-politikoak, euren eraso eta errepresioak gainditzeko auto-antolaketa eskarmentuak, etab. Iraganeko borroka adierazten dituzte eta orain aldi eta etorkizunean eragiten dute.
102. Ez da kasualitatea irabazitako iraultzak, azken uneetako zortea aparte utzita, liberazio nazionalaren borroka izana edo oinarrizko nazio eskubideak martxan jarri izana. Ez da kasualitatea galdutako iraultzen gauza bat ezkerrek arazo nazionalari muzin egin izana, eta klase menderatzaileari arazo nazionala eman izana euren onurarako soilik manipula zedin.
103. Ez da kasualitatea arrazakeria, chauvinismoa, nazionalismoa – ez independentismo sozialista – indar atzerakoi matxista, bortitz, autoritario, sadomasokista eta fobiko-obsesiboei sarritan lotuta egotea, etab. Ez da kasualitatea burgesiak honelako osagai ez arrazionalak erabiltzea, baina beste batzuetan oso argi eta kontzienteak dira. Hala euren langileak beste langileei edo etorkinei aurre egiteko erabiltzen dute.
104. Betidanik egon da lan indarraren emigrazioa baina kapitalismoak bazterreraino darama eta honela, duela gutxi arte ez ezagututako nazio arazo berriak sortzen ditu "gizarte aberatsak" derizoten herrien baitan. Izan ere, opresio egoera berriak sortzen dira eta hauek gero eta eragin handiagoa dute klase tradizioaletan, Taylor-Ford, Keynes eta langile-masaren garaian zegoena.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

105. Gero eta sarriagotan erdiko kapitalismoan sortzen diren matxinadek eta mutinek adierazten dituzte antzinako nazio sentimenduak ekarpen berriekin batera; eta hori guztia gazte proletarioaren bizimodu eskasa de presio lapikoan. Antzeko egoerak XIX mendearen erdiak Ingalaterran, XIX mendearen bukaera Alemanian, AEB-etan denbora osoan zehar, Italian iparraldeko industrializazio garaian eta frantziar Estatuan bertan 1968/1973an eta 1995etik oraintxe arte aurkitu baditzakegu ere, XXI mendearen hasiera fase berri batean sartu gara.
106. Matxinada hauek eta sostengatzen dituen barruko presioa klase borrokaren moduan dira. Itsukeria dogmatikoak baino ez du uste "Basati nihilistik", lotsagaberik direnik. Aitzitik bere baitan murgiltzen bagara bat-batekotasun eta antolakuntzaren arteko dialektikak argudio teorikoei ekiten die eta ez soilik azalezko errebindikazioei.
107. Egungo klase borrokak galdu egin dezake, jakina, baina hauxe bere etorkizuna bada ere, etorkizunerako ikasgaiak utziko ditu eta langile klasearen autokonfidantza areagotuko du. Borroka guztiek eragin baikorrak dituzte, nahiz eta txikiak izan. Hasten ez diren borrokak ez dira sekula bukatzen eta geldikeria eta derrotismoa baino ez dute sortzen, bai klaseetan, herrietan eta emakumeengan.

5. HIRU PROPOSAMEN EZTABAIDARAKO

108. XXI mendearen hasieran klase borrokak mundu mailako burgesia haserre eta suminduari aurre egin behar dio, zeren bi hamarkada baino luzez langileen kontrako eraso ostean eta nahiz eta produkzio arlo batzuek izugarritzko etekinak lortu, langile erresistentziak batzuek besteko etekinak eragozten ari dira eta ez dira kapitalaren metaketa zabalduak eskatzen duen behar beste etekin lortzen ari. Osotasun zehatzaren kontzeptutik Lanaren borrokak, sozio-ekonomia, ingurumeneko, politiko eta kultura faktoreen multzo zati bat egiten du, Hauek kapitalaren zikloa eta etekinak lortzea moteldu eta akumulazio zabaldua eragozten dute. Demokrazi burges autoritarioaren adartxoek ezin dute erreakzio, militarizazio eta inperialismoaren basoa estali. Horregatik, klase borrokak gero eta latzagoak eta gogorragoak izango dira.

Zentzu honetan, ezker iraultzaileak, borroka gogoa eta Kapitalaren gailur nagusien kontrako nazioarteko mobilizazio borroka sendotu behar duela ulertzen dugu. Beste gailur batzuen artean OMC, FMI, G-8 edo Davos-eko bilerak aipatu behar ditugu.

109. XXI mendearen hasieran klase borroka Lan klasearen batasunaren eraikuntza planteatzen ari da, Kapitalak sartzen dituen mila eta bat



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

ezberdintasun gainditzeko asmoz. Zatituta, moztuta, prekarizatuta eta esplotatutako “berez klasea” delakoa “berarentzako klasea” delakora abiatu da, ezinbesteko aurrerakuntza honek kontzientzia politikoa exijitzen du. Pasa den XX mendeko historiak adierazi du kontzientzia politikorik gabe ez dagoela “berarentzako klaserik”. Beraz, mugimendu iraultzailearen lana da, beste edozein baino lehen, Kapitalaren erasoaren esentzia politiko-ekonomikoa aurkitzea eta langile masen artean kritikatzeari; ez kanpotik, baizik eta borroka zehatzen bizi errotoz bertatik.

Horregatik guztiagatik, langile klasearen helburu nagusietariko bat sindikatu ofizialen mugimenduaren joera erreformista, itunzale eta asistentzialista gainditzea izan behar dela pentsatzen dugu. Kapitalaren aurrerakuntzak exijitzen dituen gizarte aldaketan sindikalismo sozio-politiko borrokalaria batek soilik langile klaseari bere ezinbesteko papera itzuli ahal dio. Kapitalaren erasoari aurre egingo dion nazioarteko espazio sindikalaren alde egiten dugu apustu.

110. XXI mende hasierako klase borroka hasierako langile mugimenduaren errebindikazio historikoak eta klasikoak errekuperatzen ari da baina egungo baldintzetan. Prestazio publikoen soldata zuzen, sozial eta zeharkakoen defentsa mugimendu zabal honen zati bat baino ez da. Borroka aurreratzen direnean, lantegi, bulego, eskola eta auzo etxeak okupatzen dira. Hauxe lehendabiziko urratsa da leku eta egoitzak errekuperatzeko joera batean. Langile kontrolaren errebindikazio eta demokrazia zuzenaren taupadak jotzen du eta euren helburua da sistema garailearen harresiak botatzea. Honen aurrean, burgesiak euren indar polizialak militarizatu, lege errepresioa zabaldu, defentsarako eskubideak murrizten ditu... Bi dinamika hauen arteko talkek azaltzen dituzte polizia kargak areagotzea, aukeratu eta prebentzio errepresioak. Kontzientzia sozio-politikoak soilik errealitate hau azaldu eta konprenitzea bideratzen du. Ondorioz, teoria iraultzaile baten beharra inoiz baino biziago dago egun.

Zentzu honetan, nazio barruko eta nazioarteko Gizarte Foroak borrokarako espazioak direla pentsatzen dugu. Bertan langile mugimenduak parte hartu behar du era aktibo eta protagonismo berezi batez. Euren borroka sindikala eta sozio-politiko lotu behar dituzte XXI mendean klase borrokaren beste adierazpenekin; adibidez, beste eredu ekologikoaren aldeko borroka, jeneroen arteko berdintasunaren aldeko borroka, elikagaien subiranotasunaren aldeko borroka, Giza Eskubide eta gudaren kontrako borroka, hizkuntza eta kultura aniztasunaren aldeko borroka, Herrien autodeterminazioaren aldeko borroka, etab.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

Finean, nazio barruko zein nazioarteko Gizarte Foroek mugimendu politiko, sindikal eta sozial guztien koordinazio-gune eta topa-gunea izan behar dutela pentsatzen dugu. Bakoitzak bere frontetik, demokrazia eta sozialismoaren alde borrokatzen dute munduan. Hauxe da espazio sozialik zabalena eta anitzena kontzientzia teoriko-politikoa lortzeko. Kontzientzia horrek, lan egin behar du sozialista den balizko beste mundu bakar horren alde.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: KOLONBIA

111. Amerika osoan Kolonbia da klase borrokak lortu duen mailarik altuenetakoa. 80garren hamarkadan kanpoko zorra ordaintzeko zailtasunak izan ostean, Kolonbiak atzerriko kapital masa jaso zuen eta kapital hauek 1990-1994 artean nazioak krisia gainditua zuela eta garapenaren fase egonkor batean sarturik zegoela pentsarazi zuten. Arlo borrokalaria eta iraultzaileetan urte hauek pesimismo urteak izan ziren eta talde gerrillari batzuek jarritako ordenan kokatzea onartu zuten.
112. Baina errealitatea zen ekonomia finantzarizatzen ari zela eta zeukaten industria apurra galtzen joan zen zor gehiegi zeukalako eta narko kapitalismo eta narko inperialismoaren gero eta sartuago zeuden azpian. Honen ondorioz, ustelkeria eta pobrezia areagotu zen eta erantzun bezala, klase borrokaren borroka berpiztu zen bere adierazpen guztiekin.
113. Baldintza hauen transnazional enpresak eta kolonbiarrak, langile mugimenduaren kontrako eraso bortitz bati ekin zioten; honetarako kanporaketa masiboak, desregulazioak, eskubide sindikalen murrizketak eta batez ere, errepresioa eta erailketak. 1995etik 2005era 4.000 sindikatuetakako buruzagi erailak izan dira eta dozenaka mila mehatxu, eraso eta jipoi eman dira. %5era ez dira konpondutako kasuak iristen eta honek ez du ondo konponduta daudenik esan nahi.
114. 2005eko lehenengo hiru hilabeteetan egon dira 16 hildako, 2 hiltzeko saio, 4 bahiketa, 23 eraso, 123 heriotza mehatxu, 6 halabeharrezko leku aldaketa eta 40 sindikalisten atxiloketa. Aldi berean, burgesiak ez du langileekin inolako akordiorik egin nahi: 2003an 284 akordio kolektibo baino ez zen egon, 2001ean baino %41,20 gutxiago. Gaur egun langileen %1ek baino ez du akordiorik eta %5 baino ez dago sindikaturik.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

115. Honek ez du borroka klaserik ez dagoenik esan nahi, dagoeneko muga ofizialetik at gertatzen direla, baizik; biolentziarik basatiarenaren bidez soilik erreprimitu daitezkeenak. Kolonbia "Estatu frakasatuenetarikoa omen da, herria ordenatzeko duten zailtasunagatik baina alderantzizkoa gertatzen da Estatu horren ezean burgesiak boterea aspaldian galduko zuen. Estatu militarra da bere BPGdren %1etatik %2,9tara pasatu delako eta 2005eko bukaeran %4 gaingituko omen zuen.
116. Militarizazioak gizarte gastuak suntsitzen ditu. Ikerketa serioek esaten dute urteko gastu militarra 4.800 milioi dolarretakoa dela, osasun gastuaren %116 eta hezkuntzaren %125 izango zen ekibalentzia, adibidez. Baldintza hauetan herri langilea bere kabuz antolatzen da, langile klasearekin eta ikasle arloekin. Errepresio ofizialak gorakada hau eragotzi ezin duenez, burgesiak ejertzito eta polizia pribatuak sortzen ditu.
117. Esandakoa hirietan gertatzen den bitartean, baserri aldean badago baserri txikien lur desjabetza masiboa, kolonbiar latifundistak eta enpresa transnazionalak eraginda. Hiru milioi eta erdi baserriar deportatuak izan dira. Biztanleriaren %1ek lur hoberenen %55 dauka, sarritan azpi erabiliak dira. Jabeen %0,2k badute lur ekonomikoki erabilgarriaren %47; beste %0,2k %14,2 eta beste bazterrean, baserriarren %57,3k lur osoaren %1,7 dute.
118. Bada, baldintza guztiak bete egiten dira bai gerrilletan bai hirietan borrokek euren gorako joerari eutsi diezaioten. Ustelkeria gora doa, ekonomia ofizialak ia ia ez dauka zerikusirik ekonomia errealarekin, narko inperialismoarekiko gorako mendekotasuna eta inperialismoari esker soilik bizi daitekeen burgesia bat. Honen aurrean, herriko auto-antolakuntza, gero eta arlo gehiagok prestatzen duten beren autodefentsa eta borroka arlo guztien hurbilketa progresiboa.

2. ERANSKINA: ARGENTINA

119. 2001eko abenduan, argentinar herria matxinatu zen klase menderatzaile eta errealitatean menderatzen duen AEB-en kontra. Prentsa ofizialak esan zuen euren aurrezkiak eskatzen zituzten "erdiko klaseak" izan zirela. Hala ere, prozesua sakonago eta globalagoa izan zen, non batez ere herri langileak parte hartu baitzuen. Herri langileaz ari gara berbetan eta ez industriako langile klaseaz, zeren 1976an 7 milioi langile eta 2003ko bukaeran milioi bat langile baino ez baitzegoen. Argentinako desindustrializazioa ez zen ustekabeen geratu, baizik eta bere burgesiaren eta AEB-en



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

erantzuna oso aberatsa batean goraka zihoan herri klase borroka errotik kentzeko asmoz.

120. Desindustrializazioarekin batera ezkerreko 30000 militante hil zituzten, euren arte %55 sindikatuetakoa buruzagiaK ziren. Honekin batera ekonomia hirugarren arloan eta monetarizazioan murgildu zuten eta ondorioz euren oinarritzko produkzioa desagertu eta ia kanpoko mendekotasun osoa eragin zuten. Urte gutxitan gizarte arlo batzuek oparotasunean murgildu ziren baina errealitatea berriro inposatu zen eta ekonomia berriaren irudikerian artifizialki handitutako "erdiko klaseak" txirotuak eta euren adierazpen txikienera murriztuak izan ziren.
121. Baina txarrena langile masak jasan zuen, biztanleriaren gehiengoa. Langile masa hau pobrezian sartu zuten oraindik gehiago eta gose izateraino iritsi zen. 2001eko hasieran egoera mantendu gaitza zen eta gehiengo soziala matxinatu zen urte horren bukaeran. Orduan mundu mailako langile mugimenduan praktika komunak sortu ziren baina Argentinako kasuari egokituak izan ziren.
122. Euren arte lau baino ez dugu nabarmenduko: pertsonatik behartsuenak eta ahulenak defendatzen dituzten auzoetako kolektiboak;elkartasunezko trukearen ekonomia agertzea; erakundeak, plazak eta kaleak okupatzen dituzten piketeroak, hauek ofentsibara pasatzen dira; eta langile autogestioa, fabrika eta tailerrak errekueratzea. Borroka hauek 1970ko bukaeran agertu ziren berriro lehenengo desintrustrializazioaren ostean, 1990ko bigarren zatian itzuli eta 2001ean handitu ziren. 2005eko azaroan 180 bat enpresa errekueratuak izanak ziren.
123. Klase borrokan aurrerakuntza batzuen ostean fabrikak errekueratzea konstante bat dela esaten dugu eta ez Argentinan gertatutako gauza berezirik. 2005eko azaroan venezuelar eta argentinar ordezkariak erabaki zuten Latina Amerikako Enpresa Errekueratu eta Berraktibatuen Lehen Topaketarantz abiatzea. Hauxe urrats bat baino ez da XIX mendean hasitako mundu mailako koordinazioaren bide luzean. Errekuerazio gaiari dagokionean, 2005eko maiatzean Euskal Herrian beste Nazioarteko Okupazioaren gaineko Topaketak izan ziren.

3. ERANSKINA: VENEZUELA

124. Venezuelar proposamena badoa bolibariar iraultzarekin batera, zeinek 1989ko Caracazo delakoan bere iragarpen historietariko bat izan baitzuen. Dozenaka mila lagun pobre eta gosetuta atera ziren



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

kalera eta mila batzuk erailak izan ziren. Orduz geroztik eta denok ezagutzen ditugun jauzi kualitatiboekin, Venezuelako masak aurrera jo du latifundioen desjabetza plana bete ahal izango dela ziurtatu arte. 2002ko apirilaren kontrairaultza laburra gogora dezagun. AEB-ek zuzendua eta espainiar gobernuaren PP-ek PSOEn Prisa taldeak hasi hasieratik lagundu zioten. Aitzakia izan zen Hugo Chavezen gobernuak araututako Lurraren Legea. Kolpe hilkor hura masa auto.-antolatuek gainditu zuten.

125. Asko dira bolibariar iraultzak egindako gizarte konkistak. Baina hemen bi baino ezin dugu aipatu, hauexek hain zuzen. Bata, UNT Langile Batasun Nazionala sindikatua langile baseetatik sortzeko prozesu harrigarria sorrera. Sorrera honek, aurreko sindikalismo – CTV- zahar, usteldu eta burokratizatuaren galera egiaztatzen du. Sindikatu hau burgesiaren ezinbesteko euskarria izan zen. CTV-ek 2002ko kolpe faxista bultzatu zuen, 2002ko abenduko eta 2003ko urtarrileko enpresariei euren patronal greban biziki lagundu zion. Greba honen porrotak bere heriotza egiaztatzen du, UNT sindikatu klasikotzat osatzen ari da eta. Prozesu honek, aurreko zapalkuntza luzearen ostean geratuak diren arazoak aurkitzen ditu.
126. Bestea, Enpresa askoren berraktibazio eta errekupeazioan aurreratzeko erabakia oinarritzen da hala 2005eko uztailean gobernuak egindako ikerketan nola masaren ekimenetan. Gobernuak egindako ikerketan bazeuden produkzio gabeko 700 enpresa eta beste 1149 enpresa zeinen produkzioa euren ahalmenaren %50koa zena.

4. ERANSKINA: BOLIVIA

127. Bolivian liburuko adibidea dugu klase borrokaren ikuspuntu global eta sumatutzailea, sistemika. Bertan faktore sozio-historiakoez parte hartzen dute, bai produkzio eta banaketa aurre kapitalista eta Colon aurreko ondorio eraginkorrak, bai kontzientek diren identitate etno-nazional aurre-burgesak, bai korporazio inperialista handien egungo espoliazio bortitza. Ezin dugu boliviarrak gizarte historia luzearen errepaso egin, baina 1985ean burgesiak, AEB-en aurrean amore emateko prozesua arindu eta gauza asko pribatizatu zuen. Bolivia oso aberatsa da gai estrategikoetan baina BPGdren %30 ordaindu behar du bere kanpoko zorra ordaintzeko.
128. Azken bosturtekoari dagokionez, 2000ko apirilean “uraren guda” hasi zen Cochabamban. Transnazional bai salduta eta pribatizatutako urak jabe publikoa izan zezala eskatzen zuten; 2003ko otsail eta martxoan “gasaren guda” hasi zen nazio osoan bere jabetza publikoa



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

mantentzeko; 2005eko maiatz eta ekainean “erregaien guda” hasi zen, arrazoia berbera izanik.

129. Baina urte hauetan beste guda batzuk bizirik mantendu dira, adibidez, koka egileena edo geratzen diren herri sail apurrena. Herri sail hauek mantentzen dira lur osoaren %87 menderatzen duen biztanleriaren %7ko desioen kontra, euren artean daude onenak eta meatzarienak.
130. Kontraesan bateragaitza hauen gainean Boliviako masak anitz erakunde antolatu dute, hemen laburtu ezin dezakeguna, baina euren artean nabarmendu behar dugu: Boliviako Langile Zentrala, 2003ko urriko matxinadetan gorpuztutako eta 2005eko udako borroketan aurrerapauso erabakigarria emandako Jatorrizko Herriko Asanblada Nazionala.
131. Hala ere, auto-antolakuntza honen gauzarik onena da erakundeetako promesetako sineskeria eta fede itsua ukatzen duena, baita Evo Moralasen promesak ere. Erakunde hauek, herritar beharretan aurreratu ezean, mobilizazioetara itzuliko direla esan diote presidenteari. Herriaren beharrak zinez larriak dira, Boliviako pertsona bakoitzak 8,400 iparramerikatar dolar ordaindu behar zuenean kanpoko transnazional batek gas neurri bera eskuratzeko 0,126 iparramerikatar dolar ordaindu behar zuela aintzat hartzen badugu.
132. Klase borrokan sindikatu borrokalari bati burua kentzea oso taktika arrunta dela ikusi dugu, baita kasu guztietan klase menderatzailearen Estatuaren laguntza ere. Hauxe da, hain zuzen, Nikaraguan gertatzen ari dena, Coca –Cola transnazionalak herri honetan duen langileen sindikal eskubideak kendu nahi dituenean. Horretarako SUTEC sindikatuko buruzagiak bota ditu eta gainontzeko afiliatuak mehatxatu eta presionatzen ari da 2004ko hasieran hasitako eraso batean zehar eta 2005eko bukaeran gogortu egin dena.
133. Tinteroan hegoamerikar kontinentea zehartzen duten borroka kantitate izugarria utzi behar izan dugu, bai 2006ko hasieran eztanda egin duen Txileko kobre meatzarien greba, bai ezezagunak eta ia bat-batean zapaldutako mexikar makiletako erresistentzia heroikoa, bai brasildar lurrik gabeko nekazariak, bai Guatemalako baserritarrak iparraldeko inperialismoa gelditzeko antolatzen direnak.

5. ERANSKINA: ESTATU BATUAK

134. Klase borrokak soilik teorikoki azaldu dezake 1979tik AEB-etan batz besteko familia errenta % 18 handitzea, aberatsak diren %1ena



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

%200 baino gehiago handitu zen bitartean. 1970-1995 artean pobreak diren %20 pasatu zen errenta orokorraren %5,4 %4,4 izatera pasatu zen; baina aberatsa den %20k euren errentaren zatia handitu zen %40,9tik %46,5 era. 1997tik gutxiengo soldata jaisten da eta prekarizazioa areagotzen da. 2004ko udatik 2005eko udara bitartean New York-eko hirian gosea %8 handitu da. Azken bolada honetan egindako beste ikerketa batean adierazten da familia pobreak diren %20ren diru sarrerak %19 handitu egin zirela azken bi hamarkadetan, baina % 59 familia aberatsak diren %20.

135. 1992an leku batzuetan gosea eta esplotazio etno-nazionalagatik izandako hiriko matxinadetara itzuli gabe, 1997an borroka batzuk gertatu ziren euren artean garraio eta telekomunikazio multinazional UPSeko 200.000 langilek egindako borroka nabarmendu behar dugu. Borroka hauek mundua harritu zuten emakumeek zuzendutako greba egonkor eta garailearekin. 1998an prentsak eta erakunde erreformistek, Seattle hiri industrialeko milaka langilek egindako greba, lan uzteak eta mobilizazioak isilarazi zituzten. Nahiz eta ohiko afiliazio sindikalak atzerantz jo eta nahiz eta 2000 urtean 600.000 lanpostu galdu, urte hartantxe 400.000 langile gehiago afiliatu ziren sindikatu berrietan, burokrazia sindikal eta politikotik at dagoen auto-antolakuntzarako joera berretsiz.
136. 2001eko irailaren 11z geroztik giro erreakzionario eta errepresioegilea areagotu zen eta eragin handia izan zuen sortzen ari zen langile mugimendu honetan eta gizarte eta ikasle mugimenduetan. Hauek defendatzera pasatu ziren. Eskuinak, 2004ko azaroan Bush-en garaipena goraipatu du baina errealitatean ez zen horren borobila izan, are gutxiago langile klaseen eta mugimendu berrien artean; errolda osoaren %29 baino ez zuen lortu, batz besteko hau %25era jaitsi daiteke, boza emateko eskubiderik ez duten ia 5 milioi lagun zenbatuz gero.
137. Eskuinak eta ultraeskuinak Bush-en aldeko joera sendo eta batua hartu zuen, erdiko eskuina eta erdia ez zen Kellyren aldeko mobilizazio hain masiborik suertatu, hemen ezin azal ditzakegun arrazoiengatik. Hala ere, langile klase zuriaren baitan arrazakeriaren eragin okerrak aintzat hartu behar ditugu, zeren boza eman zuen langile zurien %55ek Bush-i eman zion, Kerryk %39 lortzen zuen bitartean. AEBetan eta leku guztietan arrazakeriak bere moduan nazio zapalkuntza existitzen dela adierazten du eta yankiar kasuan langile zuriei laguntzen die errepublikar eskuma laguntza zuzenarekin eta demokraten zeharkakoarekin.
138. Errealitatean, “erabateko garaipena” delakotik ez ziren hilabete asko pasatu eta bere arrakasta jaisten eta langile eta herritar erresistentzia



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

hasi ziren arte, bai Irakeko inbasioaren porrotagatik, bai yankiar inperialismoaren boterearen galeragatik, bai barruko egoera sozio-ekonomikoaren narriaduragatik.

139. Arrisku handiko finantza espekulazioa zela medio, 2005eko udarako ezin ezkuta zitekeen gizarte asegurantzen eta pentsioen krisia; yankiar kapitalismoaren ahalmen tekniko-zientifikoa atzeraka doa eta kanpoko defizita muga jasangaitzetera heltzen ari da, kanpoko kapitalak iritsi ezean; 2005eko urrian General Motors-ek Kiebra Legea ezar ziezaioten eskatu zuen. Vietnamgo inbasioan barruko kontra egiteko bost urte behar izan ziren bitartean, oraingo kasuan, bi urte baino ez dute behar izan.
140. Desindustrializazio geldoa baina iraunkorraren, zerbitzu arloaren hazkundearen eta "kasino ekonomia" delakoaren hazkundearen artean, iparramerikar langile mugimendu berriaren aktibitatea hasten da. Langile mugimendua berriro martxan jartzen hasi da eta sindikatu ofizialak utzita bertako langileek sortutako General Motors barruan dagoen Delphi multinazionalaren oinarrizko komite sindikaletako eztabaidetan enpresak okupatzeko proposamen bat ikasten hasi dira, kanpaina zabalago baten baitan. Kanpaina honetan, General Motors eta Delphiren enpresari arloaren gizarte asegurantzen pribatizazioagatik kaltetutako jubilatuekin eta pentsionistekin akordio bat izatea lortu nahi du.
141. New York-eko garraioegileen grebak, gizarte errekupeazioaren joerari erantzuten dio, zeren halako greba bat, 1980ko 11 eguneko grebatik gertatzen ez baitzen. 2005eko arrazoiak betikoak izan zire: eskuratzeko gaitasuna defendatzea %6ko hazkundearekin, erretiroaren kalitateari eustea %2kohazkundearekin eta osasun prestazioei eustea. 1000 milioi dolarretako etekinak zituen enpresa batek eraso egiten zituen osasun prestazio hauek.
142. Nahiz eta kontrako presioa handia izan, nahiz eta ia sindikatu ofizial guztiek kontrako jarrera hartu, nahiz eta euren sindikatuak berak kezka eta zalantza izan, garraioegileek greba antolatu eta eutsi egin zioten. Abenduaren 22rako euren sindikatua bera "negoziatzen", patronalarekin eta New York-eko alkatearekin akordioak egiten ari zen langileen atzetik. Akordio hauek baseek eskatutakoak ez baziren ere, ez zuten patronalaren garaipena adierazten. Akordio hauek langileek abenduaren 27an ezagutu zituzten eta langile borrokan zer edo zer mugitzen ari dela adierazten dute.
143. Eraso guztietan murgilduta dagoen masa langilearen erresistentzia adierazten du grebak: adibidez, data horietan Ford, General Motors, Delphi, Northwest Airlines eta beste batzuen moduko enpresa



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

ikurrak euren langileen kontrako erasoan egitean ari ziren. Indar sindikal eta soziopolitiko guztiek greba hori arreta handiz aztertu dute, zeren gizarte tentsioagatik une berezi batean sortzen baita, eta batez ere, AEBetako 500 enpresa handien interesak, haietariko asko munduko handienetarikoak, defendatzen dituen Standards&Poor ahalguztidun enpresa delakoak ikuskatu du. Talde honek presio handia egin zuen gero eta handiagoa den etorkin lan indarrak eskubide sindikalik izan ez zezan. Gai honetara geroago itzuliko gara oso garrantzitsua da eta.

144. Nahiz eta halako presioak jaso, 2006ko otsailaren bukaeran langileek halabeharrezko akordio saioa ukatu egin dute. Arrazoi patronalaren eta sindikatuen maniobra batean bilatu behar da. Hauek greba bukaeran lortutako akordioen terminoak aldatu eta langileen beharrak handitu nahi zituzten. Helburua zen lehendabizi osasun plangintzen %1,5a soldatetatik ordaindu behar izatea eta egindako grebagatik ezarritako isun kolektibo eta indibidualak –hiru milioi dolar izatera iritsi daitezke- ukitzen uztea. Langileen borroka berri hau klase borrokaren gorako joeraren adierazle bat besterik ez da.
145. Hauxe eta beste borroka batzuk burutzen ari dira krisi sindikalaren erdian, 2005eko uztailan 1935tik zentralik inportanteena den estatubatuar AFL-CIO delakoan jasandako banaketagatik. Krisian arlo ofizial, burokratiko eta gora beherakoak, baina duela mende erdi bat halaxe ez hartutako erabaki batean Irakeko eraso gaitzetsi zuena, arlo “alternatiboa” den CTVri aurre egiten dio. Aurrekoa bezain gora-beherakoa eta burokratikoa da baina enpresa berrietako langile beltz, latino ez sindikatuak sindikatuan afiliatzeko beharra ikusten duena. Honela espero dute sindikatuen desafiliazioari aurre egin nahi diote eta aldi berean kuotetan sartu.
146. Duela mende erdi bat arlo pribatuan hiru langiletik bat sindikatuta zegoen, orain hamabitik bat eta beherako joera dute. Ikerketa batzuen arabera arlo pribatuan %8 baino ez dago sindikatuta, 1901etik batz besteko txikiena, era berean afiliazio sindikal osoa %20tik %12,5era jaitsi da, arlo publikoetako sindikazio maila mantentzen delako. Desafiliazio honetarako beste arrazoi batzuen artean, Reagan Administrazioak botatako eraso errepresibo eta beldurgarria oso aintzat hartu behar da eta, batez ere, 11-Sz geroztik Bushek egindako eraso. 2003ko bukaeran OIT-ek AEBetan ekintza sindikalen kontrako eraso salatu zuen. Errepresio honek jauzi bat eman du 2006ko urtarrilaren hasieran, noiz Chicagoko epaitegi federal batek epaitu du patronalak ekintza sindikalak bere kabuz oztopa dezakeela.

6. ERANSKINA: ERRUSIA



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

147. 1989/1991ko “benetako sozialismo ez zena” delakoaren inplosioa eta kasta burokratikoak klase burges bilakatu eta gero, 1930 hamarkadaren erdian teorizatutako joera, 1917ko Urritik on edo txarrean bizi iraundako lorpen sozialen, batez ere emakumeen kasuan, erabateko suntsipenari esker burutzen ari da. Honen gainean informazio zentsu nabaria badago ere, 1995ean baseetako sindikatuak sortzen hasi zirela dakigu. Sindikatu hauek independenteak ziren, bai antzinako aparailu sindikaletik, bai “euren langileak” kontrolatzeko habe berriek inplementatutako erakundeetatik.
148. 1997rako meatze, siderurgia eta abarreko grebak martxan zeuden eta beste gatazka egonkorretarako oinarriak jarrita zeuden, Kaliningrado eta beste eskualdeetan mantentzen duten bezala. Borroka hauek burgesiaren garapena baldintzatu eta galgatu duten arren, ez dute irabaztea lortu. Hala ere, langile masek eraso berriak jasaten zituzten bitartean, modu sortzaile batez erantzuten zuten eta ez soilik halako erresistentzia pasiboaren bidez. 2003ko erdialdean eskola, auzo eta eskualdeetan, batez ere jubilatuz, arlo pobretu, funtzionario prekarizatu, gizarte langile, gizarte zatien artean, herritar auto-antolakuntzarako joera indartzen hasi zen. Eskaera orokorra aurreko konkistek eustea zen.
149. 2004ko bukaeran mugimendu honek jauzi bat eman zuen eta Sobietar Batasunen Koordinazioa (SKS) sortu zuten. Erakunde honek 20 eskualdez osatzen dute eta gero eta gizarte talde, sindikatu berri, tokiko kolektibo gehiago sartzen ari ziren, tokiko borroken zabalera bultzatuz eta biderkatuz. 2005ean zehar mugimendu honek handitzen segitu du eta Putinen GKE-ak kontrolatu, ikuskatu eta erreprimitzeko erabaki berria errealitatean bada estalki legal bat langile herriaren auto-antolakuntza kontseilari eta sobiatikoaren kontra oldartzeko
150. 2005eko urrian Errusiako gizarte osaketaren gaineko datu batzuk ezkutarazi zituzten. Helduen artean % 60 pobrezian bizi da, gehienak baserrialdean. Klase baxuenaren soldadak ez dira hilean 110 dolarretara iristen. 2005eko udan, biztanleriaren masa zabal baten soldata 8.655 errublokoa zen, 303 bat dolar. Gainean “klase erdi” berria dago, biztanleriaren %25 dira eta hauek 20 mila bat errublo hilean kobratzen dute. Bukatzeko, goi mailako klasea biztanleriaren %0,4 baino ez da.

7. ERANSKINA: TXINAKO HERRI-ERREPUBLIKA

151. ESSB ohian bertan “benetako sozialismo ez zena” delakoaren inplosioa langilea klasea erantzuten hasia bada, beste horren beste



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

gertatzen ari da Txinako Herri-Errepublikaran baitan kapitalismo era “kontrolatua” sartzeko prozesuarekin. Sarrera honek, kontrolik gabeko joera du. Garaile ateratzeko joera ere badu txinatar gizarte berria burgesia baten autonomia handitu ahala, hauxe ere PKTX-ren baitan gertatzen ari da.

152. Aurrera segitu baino lehen, ESSB-ren degenerazio prozesuaren eta Txina Herriarrian “merkatuko sozialismoa” sartzeko prozesuaren arteko berdintasun eta ezberdintasunen gaineko argibide bat egin behar dugu. ESSB-n langile klasea, baseritar klasea baino askoz txikiagoa bazen ere, langile klaseak iraultza egin zuen eta on edo txarrean iraultzari eutsi zion 1920ko hamarkadaren erdialdera arte. Hamarkada horretan txarrean onean baino segitzea lortu zuen baina 1930ko hasieran agortu zen oinarritzko indar bezala. Boltxebismoaren garapen, jarraipena, ahultze prozesua eta suntsipena, gainetik aipatutako eboluzio objektibo honi lotuta egon zen.
153. Txinan langile klasea, indar kontziente eta iraultzaile bezala, desagertua izan zen 1925-27ko sarraski bortitzetan. Honen ostean, asariariuen amalgama bat geratu zen eta ia “berez klase” ahul bat izatera iristen zena baina, inolaz ere ez “berarentzako klase” bat. ESSB-rekin dagoen ezberdintasun honek eragin zuen txinatar baseritarrek sobietar langileek baino txartoago aurre egin zioten PKTXren ia hasierako burokratizazioari. 1949an txinatar lehenengo neurri sozio-ekonomikoak ez ziren bat ere erradikalak izan, baina hainbat barruko eta kanpoko faktorek euren nazionalizazio progresiboa eskatu zuten, masaren auto-antolakuntza osoa galgatu zuen alderdi burokratizatuaren azpiko kontrol gogorra.
154. Hamarkada honen erdialderako ekonomia nazionalizatu zuzendutako zatiaren eta arlo osoak nazionalizatzen segitu nahi zuen zatiaren arteko talkak ez zeukan konponbiderik. ESSB-n antzeko gauza gertatu zen Stalin hil eta Kruchevk boterea jaso bitartean. Joera hau Bresnev-en zatiak eragotzi zuen. 1966an Txina Herriarrian, Mao-k zuzendutako zatiak “iraultza kulturala” sortu zuen Liu-ren “erreformismoari” irabazteko. “Iraultza kulturala” Maok irabazi zuen arren, ekonomia mailan oso kaltegarria izan zen eta gainera, PKTXren barruko zati pribatizatzailea sendotu zuen eta barruko kontrola errekuiperatzen hasi zen Mao hil baino lehen, 1975ean hain zuzen.
155. Maoren gorpua bero zegoen oraindik, zati pribatizatzaileak alderdiaren boterea ofizialki hartu zuenean. Orduan “merkatuaren sozialismorako” edo “txinatar bereizitasunetikiko sozialismorako” martxa gelditu gaitza hasi zen. 1980ko hamarkada hasi bezain pronto, PKTX-ek erabaki batzuk hartu zituen, ostean Gorbachoven ESSB-n



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

partzialki kopiatuak izango zirenak. Beste batzuen artean, hiru arrazoik azaltzen dute zergatik PKTX-ek eutsi dion eta SBPK-k ez: txinatar ekonomia ez zeukan errusiar ekonomia besteko ahuldaderik; PKTX-ek kanpoko kapitalak progresiboki integratzen jakin izan zuen, hasieran gehienek txinatar jatorria zuten; eta Txinak daukan nazio trinkotasuna, 1980 ESSB-ek zeukana baino askoz sendoagoa da.

156. Hiru faktore hauek, eta beste batzuk, militar gastu txikiagoa kasu, “merkatuaren sozialismorako” trantsizioa azaltzen dute. Aldaketa hau, “PKTX-ren kapitalismoaren” modukoa, gizarte tentsio handirik gabe gertatzen ari da, antza. PKTX hori konfunzionismoa berriro aurkitu du, non alderdiak, txinatar zergapeko ekonomian –ez feudala- bete zuten dinastien antzeko papera bete egiten du. Antzeko paper hau, ez da berbera, behin behinekoa baino ez da, goiz edo beranduago gero eta handiagoa den txinatar burgesiak PKTX-ren barruan egoteaz gainera, klasearen botere politikoa eskuratzea ere eskatuko duelako; ekonomiaren heren bat baino ez dago Estatuaren eskuetan eta gainera zatirik zaharkituena dena.
157. Hala ere, klase borroka ukaezina da Txinan, nahiz eta prentsa zentsurak eta txinatar kontzeptu sistemak ukatzeko izugarritzko ahaleginak egin. Enpresa burgesen eskuek egin nahi duten lur pribatizazioaren kontrako baserritarren klase borroka, txinatar burgesiaren kontrako langileen klase borroka, transnazionalen kontrakoa eta Estatuaren eta PKTXren kontrakoa.
158. Badago batze prozesu bat burgesia berriaren, alderdiaren burokraziaren eta transnazionalen arteko eguneroko harremanetan. Prozesu hau arlo handia den eta gero eta aberatsagoa den hazkundearen oinarrian dago. Txinatar datu ofizialen arabera, biztanleriaren %20k kontrolatu eta kontsumitzen du nazio sarreraren %47,5. Nahiz eta oraindik inperialismoaren jabetza pribatuaren ohiko batu eta metaketa handia izatera iritsi ez, horretan aurreratzen da. Artean, ez dago ez Gizarte-Asegurantzarik, ez erretiro eta pentsio Sistema Publikorik ez nazio ez estatu mailarik, eskualde mailan baino ez. Horrezaz gain, eskubide hauek tokian tokiko botere azpian daude.
159. Okerrago oraindik, 1989ko Tiananmeneko errepresio hilkorra izan ezik, PKTX-ek beti ekidin zuen poliziak oldartzea langile klasearen kontra: Beste modu batzuk bilatzen saiatzen zen edo behintzat hori esaten du; baina 2005eko abenduan Dongzhonen poliziak 4 baserritar hil egin zituela baieztatu zen, nahi eta beste ahots batzuek 10 hildako eta 40-50 zauritu izanak zirela esan. Pixka bat arinago bi emakume langile hilik, 24 zauritu eta atxiloketa ugari suertatu ziren Chongquineko azaroaren greban zehar.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

160. Oinarrian Txina bada oraindik herri nekazal bat, nekazal klase hau kontzientziatze prozesu arin batean dago murgildurik. 1992an Herritar Komunak desagertzeko legea lurraren pribatizazioan jauzi bat izan zen eta ostean sendotu egin da. Prozesu honetan, hirietarantz doazen 250 milioi baserritar langabezian geratu dira eta, batez ere, badago nekazal borrokaren aurrerapen nabari bat. Zenbaki ofizialek diote 1993an 8.700 protestaldi egon zirela, 1994an 10.000 protestaldi 730.000 parte hartzaileekin, 1999an 32.000 protestaldi; 2002an 50.000; 2003an 58.000 3 milioi parte hartzaileekin, eta 2004an 74.000 3,8 milioi parte hartzaileekin. Datu ofizialak direla errepikatu behar dugu.
161. Nahiz eta borrokaren oinarritzko arazoa lur sailaren pribatizazioa izan, espropiatzeko modu zehatz askok baserritar erantzuna areagotzen dute, burgesia berriaren eta atzeritar transnazionalen onurako egiten ari dira eta. Lan honetan gainera, polizia pribatu bezalako portaera duten mafia hilkor berrien laguntza dute in situ. Honetaz gain, estatuko errepresioa. Gero eta handiagoa den PKTXeko ustelkeriak bidegabekeria hauek erraztu eta zaintzen ditu. Erabaki politiko baten adierazpena baino ez da hauxe eta kate transnazional handietan eta %80ra arteko diru laguntza estatala duten atzerriko nekazal produktuak sartzeari bultzada eman nahi diote. Ez gaitu harritzen McDonalds bezalako enpresak eta beste asko baserritar haserretuen erasoak jaso izanak.
162. Bere gero eta handiagoa den jabetza pribatua zigorgabetasunean defendatzen duen botere faktiko berriaren agerpenari, gero eta baserritar masa gehiagok erantzuten dio. 2004ko abenduan dozenaka mila lagunek poliziari aurre egin zioten Guangdongen, bizikleta bat lapurtzeagatik poliziak 15 urteko baserritar bat kolpeka hil egin zuela jakin eta gero. 2005ean Chizoun 10000 lagunek hipermerkatu bat eraso egin zuten, bere jabeak emakume baserritar bat bere automobilarekin zapaldu zuelako. Urte bereko urrian, Chongqingeko milaka baserritarrek dozenaka kotxe ofizial erre zuten, langile batek funtzionario batekin ustekabe larri bat izan ostean.
163. Eskualde berezietan eta hiri industrialetan klase borroka gora doa. Ofizialki poliziak onartu zuen 1993-1999 artean hirietako protestaldiak 8.700tik 32.000ra izatera pasatu zirela; Beste ikerketa berriago batek dio 1994-2004 artean 10.000tik 74.000ra pasatuak zirela. Beste polizia iturrien arabera, 2003ko udaberrian soilik ia 900.000 lagunek parte hartu zuten 9000 manifestalditan. Txinako biztanleria handia ikusita, datu hauek portzentaje txikia adierazten dute baina alde batetik, den denak adierazten du zifra errealak handiagoak direla eta, bestetik, gizarte kontrola, zaintza eta errepresioa gainditzea lor dezakeen gorako joera dela.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

164. 134 milioi afiliatu duen sindikatu ofiziala FNTC-ren ahalmen kontrolatzailea erori denez, errepresioa gora doa. Ahalmen hori galdu dute gizarte egoneza handitu delako; ondorioz sindikatu alternatiboetan ari dira afiliatzen. Kolektibo hauek emaniko datuen arabera, 1995ean Lan Arbitrajerako Komiteak 23.000 protestaldi, liskar eta greba landu zuen; 1999an 120.000 eta 2002an 200.000. 1.300 milioi biztanle duela jakinda, baliteke zifra txikiak izatea pentsatu daiteke, baina gero eta abiadura handiagoz areagotzen dira.
165. Esplotazioaren baldintza bortitzak dira hazkunde hau azaltzen dutenak: zenbait enpresa ez estataletan, leku berezietan, transnazional kapitalistek eskubide guztiak dituzte, lanera minutu bat berendu iristeari 2 euroko zigorra ezartzen zaio, ia lan egun neketsu baten soldata, non ordu estrak egiteko beharrean 15 orduko lan eguna bete dezaketen hilean behin egun gutxi batzuk opor izanik.
166. Enpresa "libre" hauetan eta Estatuak menderatutako beste batzuetan lan diziplina oso gogorra da, urrutitik kontrol sistemak zainduta, ia eskubide sindikalik gabe edo eskubiderik gabe eta normalean lan baldintzak zikin eta kaltegarriak dira. Soldatak oso txikiak dira. Halako esplotazioak gehi burgesia berriaren, alderdiaren eta merkatu kapitalistaren arteko barruko loturek azaltzen dute zergatik, adibidez, 2004an Zhongshanen ekoiztutako txinatar zapata pare batek balio zezaken 45 zentimo 14 urteko langile baten eskuetan merkatuan 150 euro balio zuten bitartean.
167. PKTX barruan badaude ezkerreko joerak burgesia berriaren hazkunde galarazi nahi dutenak, baina haietariko asko oso kolpatuak izan ziren XVI Kongresuan, noiz Komite Zentralaren %40 ordezkatu zen. 2002ko udazken hark kapitalaren hazkundera sendotu zen, txinatar enpresari handiak PKTX-en onartuak izan zirenean. Hala eta guztiz ere, badago korrante bat –Ezker Berria- gizarte inbertsioak handitzea, baserritarrei laguntzea eskatzen duena, etab.; Ejertzito Herritarraren ofizialitatearen zati handi bat erreforma hauen kontrako dagoela jakin izan da.
168. Dinamika kapitalista bereziki gogorra eta arina da leku berezietan, non 140 milioi baserritar etorkin esplotatuak diren. Emigrazio jarioak segitu du leku gehienetan milioi pilo bat langile falta dira, 1992tik euren lurraldetatik 250 milioi bat mugiturik izan. Honela proletarioago berri bat sortzen ari da, hirietako masari gero eta lotuago dagoena eta herritar auto-antolakuntzarako joeran indar erabakigarriena 2002z geroztik.
169. Nahiz eta eskarmentu eta batasuna falta izan, proletarioago hau ustekabeko borroka klasean urratsak ematen ari da eta lehendabiziko



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

emaitzak ateratzen ari da: kapitalista sarrerei Canton bezalako lurralde irekietan soldata eta gizarte hobekuntzak. Leku hauetan batz besteko soldata da 70 euro hilean, lan eguna 10-14 ordu bitartekoa eta normalean egiten diren ordu estrak ez dira kobratzen, lan baldintzak txarrak dira, baita osotasun, elikadura eta ostatu baldintzak ere. Langabeziaren desagerpen praktikoak eta enpresen aldetik lan indarraren eskaerak langile borroka errazten dute.

170. Ondoko alderdietako baserritarrak, euren egoera hobetzeko egin diren erreformen onurak sentitzen hasi dira. Baserritarrek badakite lan baldintza txarrak eta soldata eskasa jasoko dutela eta lehen baino gutxiagotan jotzen dute lan hauetara, fabrikek produktu eskaintza handiagoa jasotzen duten bitartean. Aurki, PKTX-ek neurriak hartu ditu baserritarren egoera hobetzeko. Honek hirietarako emigrazioa geldotzea eta hirietako langileen presioaren indarra handitzea ekarriko du.
171. PKTx-ek badaki zein den arazoaren larritasun; halaber urte hartan bertan dinamika hori kontrolatzen edo gelditzen saiatu zen, baina leku askotan amore emateak edo errepresioak soilik irabaz dezakete: beste batzuen artean, Shenzhen hiriak zentralizatutako leku berezi eta industrialaren kasua da. PKTX-ren eta batez ere txinatar burgesia berriaren kezka nagusia hiri-industriako auto-antolakuntza joera lurraldekoarekin eta baserrietatik bizi diren hiri txikiekin biltzea.
172. Gora doan barruko klase borroka aztertzen ari garen mundu mailako uhinarekin harremanatzen da gero eta gehiagotan. Internet-aren erabilerak PKTX kezkatzen du gero eta gehiago eta bere erabilera demokratikoa erreprimitzen ari da, TNCren ganean duen kontrola handitzen duen bitartean. Helburuetariko bat da antolatzeko eskarmentua eta beste indar iraultzaileekiko debate teoriko politikoa gelditzea. Hong-Kong-en OMC-ren kontrako manifestazioetan poliziak gogor oldartzea eta 1300 lagun atxilotzea uler dadin hemendik abiatu behar dugu.

8. ERANSKINA: EKIALDEA

173. Txinatar hazkundearen eragina gizarte gatazka sakontzen ari den faktoreetariko bat da, lehenengo eta behin, hurbileko lekuetan, Taiwan kasu. Telekomunikazioetan mundu mailako hamabosgarren enpresa den Chunghwa Telecomeko taiandar langileen borrokaren eskarmentua ikus dezagun. Borroka honek parte hartzen du 1990ko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera Asian egindako langile borroka egonkorretan, Daewo, Hyundai, etab., hego-korear transnazionalen kasuetan bezala. Chunghwa Telecom-eko 35.000 langilek bazuten sindikatu aktibo eta militantea, CTWU; baina 1999ko



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

bukaeran enpresak sindikatuaren kontrako eraso administratibo eta errepresiboa hasi zuen bere militante borrokalarien atzetik joanez, zalantza zeudenak koipetuz eta euren agente "satorren" gorakada sindikala erraztuz.

174. 2000ko martxoan aurreko zuzendaritza botatua izan zen eta enpresatik hurbil zegoen beste batek ordezkatu zuen, honek hasieratik enpresariaren eraso zuritu egin zuen. Hala eta guztiz ere, 2000ko abuztuan 10.000 langilek egun batez lana bertan behera utzi zuten eta sindikatuaren defentsan agertu zen. Hurrengo egunean sindikatuak esan zuen patronalarekin negoziatu egin zuela eta borrokatik aldentzen hasi zen, traizionatu arte. Urte beteren buruan, zerbitzu hauen truke bezala, Taiwaneko gobernu neoliberalak Chunghwa Telecomen greba desegin zuen sindikatuko zuzendaria ahokulari politiko izendatu zuen .
175. Australian ere, langileak mobilizatu ziren gobernuaren kontrako eraso gogorraren kontra, mobilizazio hauek jauzi bat eman zuten 2005eko azaroan, noiz astebete ekintzetan ibili ondoren, Melbournen ekitaldi masiboa egin baitzen. Nahiz eta mobilizazioak arrakasta izan, Australiako Sindikatuen Kontseiluak adierazi zuen mobilizazioetan milaka lagunek parte zuzena hartu ez zutela patronalen errepresaliei beldurra zietelako. Errepresalia hauek Howard gobernuak ezarritako sindikatuen kontrako neurriak errazten zituzten eta beste ondorio batzuen artean, aipatutako sindikatuen afiliazioa murriztu izanaren erantzukizuna dute.
176. Erakuntza alorreko langileek eta euren CENFU sindikatuak egindako lan egituratzailea nabarmendu behar dugu; hauxe izan da burges erasoak eragindako langile klaserik kaltetuena. Orain arte CAS-ek dirua jaso eta apurtzeko saio guztiei aurre egin die baina langile klasearen arazorik handiena da, Estatuak eta kapitalisten azpi botereek martxan jarritako eraso nazionalista-burges eta arrazista.
177. Australiako eraikuntzaren borroka sindikalismo kontsekuente batek bultzatua izan den bezalaxe, berdin gertatzen da sindikatu borrokalariak izaten diren tokietan, legeztaturik ez egon arren. Beste askoren artean hauxe da Turkian borrokatzen ari den kasua, non oraindik eskualde askotan eta ekonomia arlo askotan libre sindikatzea debekatuta dagoen; adibidez, Tracian dagoen Corluko industrialdean. Toki honetan 2005eko udaberriatik sindikatzeo eskubidearen aldeko borroka gogorrari eusten diote langileek.
178. Uztailaren bukaeraz geroztik Konyan Seydisehir aluminio enpresako langileek benetako matxinada burutu dute, eskualdeko lagun eta familiek lagunduta. Matxinatuek, beste leku batera eraman nahi zuten



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

fabrikan erosle berriei sartzea eragotzi nahi zieten. 2005eko udan Telecon-eko langileak mobilizatu ziren enpresaren pribatizazio eta azpikontratazioak galarazteko. Turkian sindikatu gehienak oraindik ez dira burgesiak ustelduak izan, eta ez da kasualitatea EBak Turkiari emaniko “aholkuren” bat “demokrazia sindikala” delakoarena izatea; hots, langile mugimendua ezarritako ordenan integratu behar du.

179. Hauxe ere bada Iraneko borroka klasearen kasua. Honetaz oso gutxi dakigu informazio itomenagatik eta erregimenaren ideologia gainditzen duen edozein gizarte borrokaren errepresioagatik. Teheraneko garraio enpresa publikoa, Vahed, 17.000 langilerekin, borroka heroikoari eusten ari zaio ikasle eta auzo arloen laguntzarekin. 2005eko maiatzean borroka gogortzen hasi zen, noiz Laneko Islamiar Kontseiluak, lan eta soldata eskubideak defendatzen dituen sindikatu libre bat sortzea debekatu zuenean. 2006ko urtarrilaren bukaeraz geroztik, errepresio era erradikalizatzeko mailan jauzi kualitatiboa eman da.

EUSKAL HERRIA
28-III-2006